

**EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOKO AHOLKU BATZORDEAREN
OSOKO BILKURA**

2007ko Uztailaren 11

AHOLKU BATZORDEKO KIDEER BANATU DOKUMENTU ZERRENDA

- 1. 2006ko abenduan hartutako erabaki nagusien bilduma**
 - Hizkuntza Politika Proiektuaren onartzea
 - 2007ko aurrekontu norabideen bozkatzea
 - Euskal Autonomia Erkidegoarekiko partaidetzaren definitzea

- 2. EEPren 2007. urteko jarduera programa (Hizkuntza Politika Proiektuaren baitan abian jarriak edo abiatzekoak diren lan esparruak).**

- 3. 2007ko proiektu deialdiaren ebazpena : akta ofiziala**

- 4. Proiektu deialdiko antolaketaren eta hautuen bilduma**

- 5. Euskal Herriko auzapez guzietan igorri gutunaren kopia**

- 6. EEP eta tokiko aginteen arteko partaidetzak : teknikarien sarearen hedatzea (egoera 2007ko urtarrilaren 26ean)**

- 7. Sortuz geroztik, Euskararen Erakunde Publikoak jorratu jarduerak euskararen eta euskarazko irakaskuntza eremuan**

- 8. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren alorrean Euskararen Erakunde Publikoaren 2007. urteko lan egitaraua**

1. 2006eko ABENDUAN HARTUTAKO ERABAKI NAGUSIEN BILDUMA

1. EEP-k 2007-2010 epealdirako Hizkuntza Politika Proiektu berria onartu du

Hizkuntza politika proiektu berri honen onartzea garrantzizko urratsa da euskararen aldeko politika publiko baten egituratzeko bidean.

Desmartxa hori urratsez urrats garatu da azken 15 urteetan :

- Euskara eta euskal kultura kontutan hartzea, Euskal Herria 2010 lurralde egitasmoan (92/93)
- Hizkuntza antolaketa eskema baten onartzea, Euskal Herriko lurralde antolaketa eta garapen eskemaren baitan (97)
- Euskarari dagokion atal berezi baten onartzea Euskal Herriko Hitzarmen Bereziaren baitan (2000)
- Hizkuntza Politikarako Obragintza Publikoaren sortzea (2001)
- Euskararen Erakunde Publikoaren sortzea (2004)

Gaur, podere publikoek egiazko hizkuntza politika proiektu bat onartzen dute, helburuak, estrategia, norabideak, ekintza programa eta jarraipen adierazleak finkatuz.

Hizkuntza politika proiektu berriak heldu diren lau urteentzat Euskararen Erakunde Publikoaren ekintzak bideratzen ditu. Proiektua, azterketa soziolinguistiko batek ondorioztatzen duen helburu nagusi batean oinarritzen da, « hiztun osoen kopurua emendatzea », eta estrategia nagusi bat, haur eta gazteak lehentasun gisa hartzea, finkatzen du :

HIZTUN OSOAK HELBURU, HAUR ETA GAZTEAK LEHENTASUN

Horra proiektuaren oinarritzko lema, lan honen egiazko iparrorratza, egitasmoaren egituratzea eta gauzatzea norabidetzen dituena.

→ **12 erronka nagusi** begistatuak dira, Hizkuntza Politikak landu behar dituen esparru gisa direnak. Hiru alorretan biltzen dira :

- Hizkuntzaren transmisioari lotu 3 erronka : EUSKARA ONDOKOEI EMAN
 - Familia bidezko transmisioa : « Familia, euskararen transmititzeko tresna estrategiko gisa berreskuratu »
 - Lehen haurtzarora : « Lehen haurtzaroko egiturekin eta profesionalekin, hizkuntzaren transmisioaren zirkuitz izanen den euskarazko zerbitzu eskaintza bat plantan jarri »
 - Irakaskuntza : « Euskararen transmisioan baitezpadako tresna bihurtu den eskolan, hizkuntzaren irakaskuntza garatu eta egituratu, euskara aldi berean hizkuntza irakatsia eta irakaskuntzarako hizkuntza izanki »
- Hizkuntzaren erabilpen sozialari lotu 5 erronka : EUSKARAZ BIZI
 - Hedabideak : « Hedabideak, euskara gizartean biziarazteko eta hizkuntzaren mailaren hobetzeko tresna bihurtu »
 - Aisialdia : « Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamena uztartu »
 - Argitalpena : « Euskarazko argitalpen kate eraginkorra egituratu, argitalpen eskaintza erakargarria eta eskura erraza jendetarazteko gisan »
 - Toponimia : « Toponimia, euskararen agerian jartzeko eta publiko berri baten euskarara erakartzeko aukera gisa baliatu »

- Euskararen tokia bizitza sozialean : « Gizartea euskaldundu, euskal hiztunek hizkuntza bizitza sozialean baliatzeko, entzuteko eta ikusteko aukera ukan dezaten»
- Zeharkako 4 erronka, beste erronkekin harremanetan daudenak : EUSKARA AZKARTU
 - Helduen euskalduntzea : « Helduei, hizkuntzaren ikasteko eta hobetzeko aukerak eskainiz, euskararen erabilpen pribatu zein profesionalak sustatu »
 - Euskararen kalitatea : « Hizkuntzaren kalitatearen alde etengabeko indarrak egin, euskara irakastean, baliatzean edo zabaltzean »
 - Ikerketa : « Ikerkuntza, tresna gisa baliatu, hizkuntzaren kalitate maila hobetzeko, politika publikoaren egokitasunaren azkartzeko, eta euskararen zabalkundearen emendatzeko »
 - Motibapena : « Motibapena piztu, azkartu eta egonkortu, euskararen ikastearen, baliatzearen eta transmititzearen aldeko dinamika iraunkor bat jendartean sortzeko gisan »

➔ Erronka bakoitzarentzat, hizkuntza politika proiektuak **orientabide estrategiko** batzuk (bizpalau erronka bakoitz) definitzen ditu, segitzekoak diren norabideak finkatzen dituztenak.

➔ Orientabide bakoitzarentzat, **lan ardatzek** ekintza, ekimen, proiektu batzuk zerrendatzen dituzte, finkatu norabideetan bide egiteko obratu behar direnak. Horietarik batzuk, EEP-k bere baitarik eramango ditu zuzenean, eta beste batzuk, eragile publiko edo pribatuak zein elkarteek eramanen dituzte, EEP-rekin adostu partaidetza batzuen baitan.

➔ Bururatzeko, hizkuntza politika proiektuak egitasmoaren obratzearen ebaluaketa zehatz baten egiteko beharra azpimarratzen du, jarraipen **adierazle** batzuen bitartez euskararen egoeran zer ondorio duen neurtzeko, eta hizkuntza politika proiektuaren egokitasunaren zaintzeko beharra, finkatu helburuak ikusiz.

Sar hitz orokor batek euskararen aldeko politika publiko baten urrats ezberdinak, testuinguru elementu orokorrek (geopolitikoak, soziolinguistikoa, juridikoa) kontutan hartzen dituzten printzipio politikoagoak eta proiektuaren eraketa eta gauzatzearen izaera hitzartua aurkezten ditu.

EEP-ko Aholku Batzordeko kideekin antolatuak izan diren bi hitzartze faseak biziki aberatsak eta eraginkorrak izan dira :

- Lehen fase batean, hamar bat bilkura antolatuak izan dira, non parte hartu duten 100 bat pertsona inguru, eta elkarrizketak izan dira euskalgintzako eragile, erakunde publikoko teknikari eta aditu batzuekin. Fase horri esker, lekukotasun, iritzi eta proposamen ezberdinak bilduak izan dira, 2006ko uda arte.
- 2006ko urrian, Administrazio Kontseiluak onartutako aitzin proiektua aurkeztu ondoren, 20 ekarpen baino gehiago eskuratuak izan dira. Ekarpen guzi horiek aztertuak izan dira, eta hizkuntza politika behin betiko proiektua aberastua, egokitua eta zehaztua izan da.

2. EEP-k 2007. urteko aurrekontuak onartu ditu

EEP-ren lehen bi urteko ibilmoldeari begira, 2007ko aitzinkontua **arramoldatua** eta **egokitua** izan da.

Administrazio Kontseiluak bozkatu aitzinkontuetako norabideak hiru puntutan egituratzen dira :

2.1. Koadro berri bat euskararen aldeko politika publikoarentzat

Euskararen Erakunde Publikoa sortzean 2004ko abenduan, lehen bi urteetan ondoko bi helburuak bete beharko zirela erabakia izan zen :

- Hitzarmen Bereziaren baitan erakunde partaideek hartutako engaiamenduak ohoratzea, eta hitzarmenean hizkuntzari doakion atalaren obratzearen segitzea 2006eko urte bukaera arte.
- Erakunde Publikoaren sortze testuetan idatziak diren eginkizun berri hauen esperimentatzea :
 - Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garatzea eta egituratzea, Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Hezkunde Nazionalaren artean izenpetu hitzarmenaren baitan Erakunde Publikoa obratzaile izanki ;
 - Euskararen erabileraren sustatzea bizitza sozialean.
- Euskararen Aholku Batzordean bilduak diren elkarte partaideen laguntzaren eta jakitatearen biltzearen antolatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoarekin hitzarmen bereziaren baitan abiatu erakundeen arteko partaidetza segitu.
- 2007-2010 epealdia prestatu, Hizkuntza Politika bat eratuz.

EPP-ren Administrazio Kontseiluak erabakitako obratze gida hau osoki errespetatua izan da. Elementu erakusgarrien artean hauek azpimarra daitezke :

- Hitzarmen Bereziko operazio guziak bukaera arte eramanak izan dira.
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren epe luzeko programazioa 2005eko urrian onartua izan da, eta 2006eko urte hastapenean obratzen hasi da.
- Teknikari sare bat pixkanaka egituratzen ari da euskararen promoziorako hurbileko animazio bat segurtatua izan dadin tokiko elkargoekin partaidetzan.
- Euskal Autonomia Erkidegoarekiko partaidetza garatu da eta 2007ko urtarrilean EEP eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren artean kooperazio akordio berri bat izenpetuko da.
- Euskalgintzako eragileak zenbait hilabetez elkartu dira parte hartze desmartxa batean, hizkuntza politika proiektua sortzen laguntzeko. Honen ondorioz hizkuntza politika proiektua onartua izan da, epealdiak errespetatuz.

Hitzarmen Bereziaren bukaerak eta batez ere euskararen aldeko politika publikoarentzat finkatu koadro berriaren onartzeak, aldaketa zenbait ondorioztatzen ditu, bai Euskararen Erakunde Publikoaren aitzinkontuaren norabideei dagokienez, bai jarduera programen definizioetan eta eskuartze eginmoldeari doakionez.

2.2. Hiru mailatan eraman jarduera osagarrien bidez obratu proiektua

Hizkuntza politika proiektuaren obratzea eraginkorragoa izanen da, erdiesten baldin bada inizatibak 3 maila ezberdinetan molde osagarri batean eramaten :

2.2.1. Euskararen Erakunde Publikoak eraman jarduerak

Hizkuntza politika proiektuaren obratzean, Euskararen Erakundeak berak obratuko dituen jarduerak dira.

Lehentasuna animazio eta egituratze funtzioetan datza, esku-hartze publikoa erabakigarria izan daitekeen alor estrategikoetan.

2.2.2. Tokiko elkargoez eraman jarduerak

Lurralde ezberdinetan politika publiko koherente baten egituratzeko gisan, Erakunde Publikoak lehen mailako tokiko elkargoei egin proposamena arrakastatsua izan da.

Euskararen baliatzearen bultzatzeko nahikundea duten herrien sustatzea eta laguntzea da dispositibo honen helburu nagusia. Aldi berean, hizkuntza politika proiektuaren beste lan ardatzak lurraldean eramateko tresna bihurtzen da.

EEPk Euskal Herri osoan obratzen dituen operazioak odatzeko gisan, EEPk tokiko inizatiba horiek diruz eta partaidetza teknikoaren bidez laguntzen ahalko ditu, banaka aztertuz. ETBren hedagailuen mantentzeko, EEP-k eta Euskal Kultura sustengatzen duen herrien arteko Sindikatuak finkatu partaidetza koadro horretan eramana izanen da 2007tik goiti.

2.2.3. Elkarteko eragileek eraman jarduerak

Hizkuntza jarduera egituratzaileenak, urte eta eremu anitzetan, elkarteek sortu, eraman eta garatu dituzte.

Gaur egun garatzen ari den politika publikoak ez du elkarteen tokia hartu nahi. Alderantziz, elkarteen jarduerak lagundu eta azkartu behar ditu, erakunde publikoek finkatu norabideekiko osagarritasun eta koherentzia batean.

Gaur egun, euskararen egoera sobera larria baita, lehia batean sartzeko arriskurik ez da hartu behar. Horrek euskararen aldeko ekintzei eraginkortasuna ken bailezake, batzuek eta bestek eramandako ekintzen lorpenerako ezinbestekoa den gizartearen atxikimendua ahulduz.

Eragileei emandako diru laguntzetatik haratago, Euskararen Erakunde Publikoak, euskalgintzako elkarteekin harreman hertsia atxiki nahi ditu : azterketa teknikoaren zein kontuei ala alderdi juridikoen azterketen eramaten laguntzea.

2.3. Lau aitzinkontu-tresna, jarduera hauen gauzatzearen ahalbideratzeko

Hizkuntza politika proiektuaren lan ardatzen abiatzeko, animatzeko, laguntzeko, zuzenean zein partaidetzan eramateko, EEP-k lau mailatan egituraturiko aurrekontu bat beharrezkoa du :

A. Erakunde Publikoak bultzatutako jarduerentzat **edo** tokiko elkargoez EEP-rekin partaidetzan eramaten dituztenentzat 306 000 €ko aurrekontua pentsatua da.

Aitzinkontu hori, 2007. urtean lehentasunez eraman beharko diren hizkuntza politika proiektuaren jardueren obratzeko baliatuko da.

B. Elkarteek eramaten dituzten jarduerentzat, hizkuntza politikan aipatuak diren lan ardatzak segituz, 2007. urtean proiektu deialdi bat egingen da eragileak diruz laguntzeko.

Bestalde, proiektu deialdi hori Euskal Autonomia Erkidegoarekin partaidetzan eginen da. Bi erakundeek partaidetzazko fondo bat sortuko dute.
2007an, Euskararen Erakunde Publikoak 1 000 000 €-ko dirutza emanen du fondoan.

C. EEP-k abiatu proiektuen eta elkarten ala beste obratzaileen jardueren arteko bide gurutzean kokatzen baita, EEPk ikasmaterialgintzan orain arte eraman urratsak segituko ditu, 2006az geroztik eginkizun hau koadro egituratu baten baitan sartzen da, bakoitzaren paperak eta funtzionamendu irizpideak finkatzen dituena.
300 000€-ko aurrekontu bat aurreikusia da, Hizkuntza Politika proiektuan osoki sartzen den jarduera horren bideratzeko (IKAS-ekin partaidetza + ikasmaterial berrien sortzea).

D. Bukatzeko, Hizkuntza Politika proiektuaren obratzeko, egituraren funtzionamendu gastuei erantzun diezaikeen aurrekontu bat beharrezkoa da. 460 000 €koak dira 2007. urteko iragarriak diren funtzionamendu gastuak.
2007. urtean EEPren langile taldea azkartua izanen da, 7 langileetara pasatuz, barne zuzendari bat denbora osoz.

2007ko aitzinkontua 2 066 000 €koa izango da, erran nahi baitu %20eko emendatze bat 2004 eta 2005eko aurrekontuekin parekatuz, 333 000 € gehiago mobilizatuz. EEP-ko kide bakoitzaren ekarpena honela banatua da :

- Estadoa : 620.000 €
- Eskualdeko Kontseilua : 620.000 €
- Kontseilu Orokorra : 620.000 €
- Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikatua : 186.000 €
- Hautetsien Kontseilua : 20.000 €

Euskal Herriko Hitzarmen Bereziaren hizkuntza atalaren gauzatzeko, 2001-2004 epealdian urteko aitzinkontuak bana beste milioi bat eurokoak izan dira. EEP-ren 2007ko aurrekontuak kopuru hori bikoizten du.

2007. urtea, hizkuntza politika proiektu berriaren gauzatzearen lehen urtea izango da. Lehen fase horren bukaeran, gauzatzearen erritmoa, agertuko diren oztopoak, proiektuaren edukia eta baliabideen egokipenaren aztertzea egokia izango da.

3. EEP-k Euskal Autonomi Erkidegoarekiko partaidetza hitzarmen berriaren 2007. urterako eginmoldeak onartu ditu

2003az geroz, partaidetza protokolo batek Euskararen Erakunde Publikoaren eta, bere lurraldean hizkuntza politikaren ardura duen Euskal Autonomi Erkidegoaren (EAE) arteko lan harremanak antolatzen ditu.

Lau urtez ibili den partaidetza horrek bi alderdien arteko ezagutza azkartu du, eta konfiantzazko harremanak sortu. Honen ondotik, EEP-k eta EAE-k partaidetza hitzarmen berri bat izenpetu dute 2007ko otsailaan. Hizkuntza Politika proiektu berriaren onartzearen denbora berean gertatzen den partaidetza hitzarmen horrek, bi berrikuntza nabarmen ekartzen ditu, mugaz gaindiko harremanen antolaketa alorrean esperientzia aski berritzailea bilakaraziz:

3.1. Bi alderdiek urtero elkarrekin eramango dituzten ekintza programa baten finkatzea adosten dute. 2007. urteko lan nagusia bost urtetarik egiten den inkesta soziolinguistikoen artean 4garrenaren bururatzeko izango da. Lehen aldikotz, EEP-rekin antolatua izan da, EEP-k gastuen %25a baino gehiago bere gain hartzen dituelarik, 66 000 €-ko aurrekontu bat aurreikusiz.

3.2. Ipar Euskal Herriko Euskaingintzako eragileei banatutako dirulaguntzei dagokienez : bi alderdiek beren lankidetzak sakonduko dute proiektu deialdi amankomun bat antolatuz. Partaidetza bono bat sortuko dute, EEP-ko hizkuntza politika proiektuarekin eta euskara biziberritzeko plan nagusiaren helburuekin bat egiten duten egitasmoen diruz laguntzeko.

Dispositiboa gauzatu da 2007ko lehen hilabetetan.

2. EEPren 2007. urterako

jarduera-programa

Hizkuntza Politikarako proiektuaren baitan hasitako edo lehentasunez hasi beharreko lanak.

1) Lehen haurtzaroa

↳ Haurtzaindegietako lehen haurtzaroaren harreraren diagnostikoa bukatzea eta zabaltzea.

↳ Egun dauden haurtzaindegi-proiektu guztietan euskarazko zerbitzua sortzeko aukera aztertzea (Herri Elkargoekin lankidetzan, teknikari-sareetan oinarrituta).

↳ Ama laguntzaileen errolda egitea, eta, sektorez sektore, teknikariek lotuta, euskara mailako praktikak, izan daitezkeen beharrak eta abar antzematea.

↳ CAFarekin eta Kontseilu Orokorrekin, haurtzaindegiei zuzendutako euskarazko zerbitzu-eskaintza egituratzea: label-prozedura baterantz?

↳ Lehen prestakuntzaz arduratzen diren profesionalei eta erakundeei zuzendutako hizkuntza-prestaketarako gailu bat zehaztea eta proposatzea, nahi dutenentzat (haur gazteen hezitzaile, lehen haurtzaroko CAP...).

↳ Egun haur gazteenentzat dauden euskarazko materialen katalogo bat argitaratzea, profesionalei zabaltzeko.

2) Irakaskuntza

↳ "Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa kualitatiboa" hainbat urtetarako planaren bigarren atala prestatzea eta abiaraztea:

- ❖ Maiatza-iraila: errektoretzako eta Akademiako Inspekzioko zerbitzuekin eta hezkuntza-sistemako eragileekin prestaketa-bilkurak egitea, informazioa biltzea, egungo egoeraren diagnostikoa eta lehen eta bigarren hezkuntzarako norabide-proposamenak idaztea, kontsulta-batzordearen bilkurak antolatzea...
- ❖ Urria-azaroa: Administrazio Kontseiluak Euskararen Erakunde Publikoak arlo horretan eginiko diagnostikoa, norabideak eta operazio ibilbide-orria aztertzea.
- ❖ Ondoren: ibilbide-orria martxan jartzea.

↳ Diagnostiko kuantitatiboa eguneratzea:

- ❖ Maila guztiak / Sail guztiak / Sektore guztiak.
- ❖ 04/05etik 07/08rako ikasle-kopuruen, postu-kopuruen, gune elebidunetako proportzioen eta abarren bilakaera aztertzea.
- ❖ 2007ko bigarren lauhilekoan egitekoa.

↳ Hezkuntza Nazionaleko Ministerioaren eta Seaskaren arteko akordioa prestatzeko lanak segitzea:

↳ Hainbat urtetarako planaren lehen atalaren aplikazioari dagozkion lanak segitzea:

- ❖ Hasitako harremanekin segitzea.
- ❖ Plangintzan zehaztutako lehentasunen arabera, harreman berriak sortzea.

↳Irakaskuntzari loturiko beste arlo "iraunkorrak":

- ❖ Irakaskuntza eta IKTak: MP3 proiektua segitzea, elebitasuna lan-ingurumen numerikoko proiektuetan...
- ❖ Irakaskuntza eta sentsibilizazioa: 2007an hiru aholkulari pedagogikoekin hasitako lankidetzaren segitzea.
- ❖ Material pedagogikoak: argitalpen-programak segitzea eta bigarren lauhileko beharrak ebaluatzea, Ikasen eraikuntza-proiektua segitzea.

3) Aisialdia

↳Elkarte-eragileak profesionalizatzen laguntzea: Udalekurekin egin beharreko lana (kontabilitate analitikoa, zuzenbide komuneko finantzaketa publikoak antzematea...).

↳Haur eta gazteekin ari diren kultur eta kirol elkarteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea (Herri Elkargoekin lankidetzan, teknikari-sareetan oinarrituta).

4) Hedabideak

↳Audientziari buruzko inkestaren emaitzak prestatzea eta zabaltzea

↳Euskarazko hedabideak sustatzeko ekintzak egitea: liburuxka bat argitaratzea, erakundeei eta enpresa handiei helaraztea.

↳ETBko harreraren eskema gidaria definitzea.

5) Argitalpena

↳Euskarazko eta okzitaniarazko funtsetako liburuzainen prestaketan parte hartzea, ARPELekin lotuta (07ko maiatza).

↳Eskualde-hizkuntzazko argitalpenari buruzko ARPEL / Okzitaniako Erakundea / EEP-EKE lankidetzaren "ikerketak / ekintzak" batetik abiatuta, jarduera-programa martxan jartzea (baldintza-agiria egiten ari da).

6) Toponimia / Hizkuntzaren kalitatea

↳Aritu-batzordea sortzea

↳Lehen lexikoen argitalpena

↳Euskaltzaindiarekiko hitzarmena formalizatzea

7) Bizi soziala

↳Elkarteekin lankidetzaren:

- ❖ Tokiko Gidaritza-Batzordeen lanetan parte hartzea eta lan horien segimendua egitea (Hego Euskal Herria, Nafarroa Beherea, Zuberoa, Errobi, Baiona, Biarritz).
- ❖ Hendaia, Donibane Lohitzune eta Errobi-Aturriko Herri Elkargoarekiko harremanekin segitzea.

- ❖ Teknikari-sarea animatzea.
 - ❖ Herrietako euskararen presentziari dagozkion arloak segitzea (softwareak, prestaketa, lege-esparrua...).
 - ❖ Kontseilu Orokorrarekiko hitzarmenarekin segitzea.
- ↳ Eragileei begira euskara sustatzea:
- ❖ Surfider, Aviron Bayonnais, Ruée au jazz eta Euskal Xerria taldeekin sinatutako hitzarmenarekin segitzea.
 - ❖ Lyonnaise des eaux-rekin abian den ekimenaren bururatzea

8) Ikerketa

↳ Inkesta soziolinguistikoko etapa guztiak segitzea, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetzan, emaitzak argitaratu arte.

9) Motibazioa

- ↳ Webgunea sortzea:
- ❖ AMO (Numerikoaren Departamendu-Agentzia), beharrak zehazteko eta baldintza-agiria idazteko.
 - ❖ Eskaintza-eskaerak egitekoak.
- ↳ Euskal kultura sustatzeko Herrien arteko Sindikatuak, EKE eta Euskal Konfederazioarekin partaidetzan eta EEPren laguntzaz, urrian Kanbon antolatzea duen Eskualde-arteko Topaketen segitzea.

10) Hizkuntza Politikorako Proiektuko gai guztietan

- ❖ Proiektu-eskaerak kudeatzea (Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetzan).
- ❖ Onartutako proiektuen jarraipena egitea.
- ❖ Adierazle-oinarria ezartzea eta segitzea (besteren artean, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetzan).
- ❖ Elkarre-eragileen profesionalizatzea (ezaugarri juridikoak, diru mailakoak...): Euskal Irratiak, AEK, Seaska, Herria, eta Udalekurekiko harremanak abian edota hastekoak dira



KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Viceconsejería de Política Lingüística

3. IPAR EUSKAL HERRIKO EUSKALGINTZAKO ERAGILEEI ZUZENDUA DEN 2007ko PROIEKTU DEIALDIAREN EBAZPENA

DECISION RELATIVE A L'APPEL A PROJETS 2007 AUPRES DES OPERATEURS DE LA LANGUE BASQUE DU PAYS BASQUE DE FRANCE

EBAZPENA, 2007ko Maiatzaren 21-koa, Euskararen Erakunde Publikoarena, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten Ipar Euskal Herriko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak jendaurrean jakinarazten dituena.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2007ko Otsailaren 7an izenpetutako hitzarmen-markoak eta 2007ko Martxoaren 27an izenpetutako eranskinak dioten arabera, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten Ipar Euskal Herriko erakunde pribatuentzako dirulaguntzetarako deialdia egin zen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordearekin aztertuz geroz, Euskararen Erakunde Publikoak deialdia ebatzi du. Erabakia eskatzaile bakoitzari zabaldua izango zaio gutun baten bidez. EEP-ko Administrazio Kontseiluko erabakien bildumari erantsiko zaio ebazpen hau.

Horregatik guztiagatik, honako hau :

EBATZI DUT :

Lehengoa – goian adierazitako aginduen babesean diruz lagunduko diren eskabideen zerrenda, eta ematekoak diren dirulaguntzak, argitara ematea (I. eranskina)

Bigarrena – diruz lagunduko ez diren eskabideen zerrenda argitara ematea, euren proiektuek deialdiko araudien 10. artikulua araberako balorazio maila txikiegia lortu dutelako (II. eranskina)

Hirugarrena – Baztertutako eskabideen eta hartarako izan diren motiboen zerrenda argitaratzea (III. eranskina)

Baionan, 2007ko Maiatzaren 21-an

RESOLUTION du 21 Mai 2007 de l'Office Public de la langue basque rendant compte des décisions relatives à l'appel à projets 2007 auprès des opérateurs linguistiques de Pays Basque de France.

Conformément à la convention-cadre du 7 Février 2007 et à l'annexe relative du 27 Mars 2007 signées entre le Ministère de la Culture du Gouvernement Basque et l'Office Public de la langue basque, un appel à projets a été organisé afin de soutenir les initiatives des opérateurs dans le domaine de l'utilisation et la promotion de la langue basque.

Après examen concerté avec le Vice-Conseiller à la politique linguistique, l'Office Public de la langue basque s'est prononcé sur les décisions relatives à cet appel à projet. Chaque décision sera notifiée aux intéressés par courrier. La présente résolution sera annexée au relevé de décisions de l'Office Public de la langue basque.

Tenant compte de ses éléments,

JE DECIDE :

Article 1 – la publication de la liste des projets retenus au titre de l'appel à projets et le montant des subventions allouées (Annexe I)

Article 2 – la publication de la liste des projets qui ne bénéficieront pas d'une aide financière, au motif qu'ils n'ont pas satisfait aux critères définis à l'article 10 du règlement de l'appel à projets (Annexe II)

Article 3 – la publication la liste des projets non retenus et les motifs de cette décision (Annexe III)

A Bayonne, le 21 Mai 2007

MAX BRISSON

Euskararen Erakunde Publikoko Lehendakaria
Président de l'Office Public de la langue basque

I. ERANSKINA

Dirulaguntza jasoko duten eskabideak

Saila	Eskatzailea	Egitasmoa	Dirulaguntza
1. Famili transmisioa	Alda	Familia komunikazioa euskaraz	9240
2. Lehen Haurtzaroa	Laguntza etxerat	Haurra eta liburua	500
	ohakoa haurtzaindegia	Mari Motots ikuskizuna	3688
	luma	luma haurtzaindegia Baionan	7945
	Garaziko Haurtzaindegia	Material pedagogikoa	1000
	Ohantzea	Langileen euskalduntzea	3465
3. Irakaskuntza	Euskal idazleen biltzarra	idazleak ikastxeetan	4770
	Okindegien eta Gozotegien Departamenduko federazioa	Teknologia berriak ogia eta okinen ofizioaren promoziorako euskara baliatuz. Haurrei eta eskolei zuzendua.	910
		Euskal Haziak	Bizi sozialeko eta aisialdietako ekintzak Beste ekimenak – Ibil moldea
	biga bai	2007ko jarduerak	10000
	Ikas Bi	Buraso elkarte + Azkarateko zentroa	39000
	NRD consulting	ikasklik proiektua	51240
	Seaska	Seaskako federazioaren ibilmoldearentzat dirulaguntza eskaera, pedagogia, hezkuntza, kultura eta administraziooko jarduerentzat	190698
	4. Hedabideak	TVPi	Parlers d'ici emankizunaren sortzea
aldudarrak bideo		kanaldude 2007	44000
antxeta irratia		antxeta irratia	25000
euskal irratia		euskal irratia	250000
errobi promotions		radio kultura	25000
herria		herria kazeta	30000
5. Aisialdiak	Alda	Aisialdiak euskaraz	7350
	Uda Leku	Hezkuntza herrikoi arloko/ aisialdi jardueren bitartez euskararen erabilpena sustatu. "Euskaraz gozaten Uda Lekurekin"	106814
	kirokoketa	musika irakaskuntza euskaraz	10000
	lema elkarte	itsas bela erakats euskaraz	10000
	Maite dugulako	josta gaitezen euskaraz	8300
	zirrimarra	euskarazko animazioak	1000
	IPARRALAI	Trikitixako eta panderoko kurtsoak euskaraz / Kantu eta dantza / Musika prestakuntza	10000
	Iparraldeko Euskal Dantzarien Biltzarra	Dantza eta musikaren erakaspina euskaraz	10000
	F3C Elkarte	txalaparta kurtsoak euskaraz - lizeo batekin elkarlana - web gunearen eguneratzea	1000
	Elirale elkarte	LODIKROKO emanaldia	4000
6. Argitalpena	Marc Delizy	Euskarazko komiki saila "AZPIKERIA"	515
	Atlantica	fables (Florian) argitalpena	3221
	Atlantica	l'école buissonnière (Mistral) argitalpena	3733
	Atlantica	les carnets extraordinaires d'Antton Txori, Laminak	3855
	Le Grand Chardon - Astobelarra	« la lettre à l'éléphant » Romain GARYren liburua elebidunaren argitalpena	759
	Su Azia	Urteko jarduerak	4000
	gatuzain	liburu berrien argitalpena	2000
	Euskaltzaleen Biltzarra	Euskaltzaleen Biltzarraren ekitaldiak eta argitalpenak	5000
	Euskal idazleen biltzarra	Hamakaren deia	4000
	Euskal idazleen biltzarra	herri mintzairen idazle	7415
	zabalik	manex erdozaintzi obren ezagut araztea	4295

Saila	Eskatzailea	Egitasmoa	Dirulaguntza
8. Euskararen presentzia bizi sozialean	euskal herria zuzenean	euskararen presentzia festibalean	5000
	"Lurrama, la ferme Pays Basque" Laborantza saloia	"Lurrama, la ferme Pays Basque" Laborantza saloia	5000
	Abbadiako adixkideak	ez ikusi, ez ikasi	20000
9. Helduen Euskalduntzea	AEK	2007ko lan programa	242000
	Maite dugulako	euskaraz bizitzen hasteko	10000
	Angeluko ikasleak	Helduak euskaldundu	1350
10. Euskararen kalitatea	euskaltzaindia	2007ko lan programa	140000
	deiadarra	xalbador eguna 2007	4500
	Bertsularien Lagunak	Bertsularitza begiratu eta garatu Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan	40000
11. Ikerketa	Sophie Barneche	Ikerketa proiektua – Euskararen irakaskuntza : Hiztunen irudikapenak, hautuak, motibazioak eta igurikatzeak	10000
12. Motibapena	seaska	euskar@biada	9302
GUZTIRA			1450000

II. ERANSKINA

Dirulaguntzarik jasoko ez duten eskabideak

Saila	Eskatzailea	Egitasmoa
3. Irakaskuntza	Euskal idazleen biltzarra Gure ikastola Hendaia Gure ikastola Hendaia Gure ikastola Hendaia Gure ikastola Hendaia Gure ikastola Hendaia Gure ikastola Hendaia	memorio buruxkak Bazkaldu eta jostatu Lagunekin esnatuz Informatika euskaraz Lehen Hitza euskaraz Asteazkenetan euskarazko ekintzak Harria Papera aixturak
4. Hedabideak	Assoc dev des medias transfrontaliers baigura communications TVPi aztibegia	KB euskaraz gazteendako dohaineko astekaria kantUda emankizunaren sortzea info 7 irratia
6. Argitalpena	mendizolan IKAS BI irakaskuntza publikoaren ikasle elebidunen buraso elkarte Armeniar Hizkuntza Akademia Armeniar Hizkuntza Akademia Armeniar Hizkuntza Akademia Atlantica Atlantica Atlantica Eusko Ikaskuntza Biblio elkarte Biblio elkarte Biblio elkarte	pinpirin Nanai aldizkaria "stèles funéraires en Pays Basque" itzulpena Araxes aldizkariaren argitalpena "Aitor : légende cantabre", Chahoren itzulpena les petits poèmes de Baudelaire rousseau anthologie poesie "Xiberotarra-Zuberera : Le dialecte basque souletin" liburu elebidunaren argitaratzea soziologiaren krisia liburuaren argitalpena mobilizazioaren soziologia liburuaren argitalpena gizarte langintzako teknikak liburuaren argitalpena
7. Toponimia	Erakats elkarte	Mendialdeko toponimiaren bilketa
8. Euskararen presentzia bizi sozialean	Kom- On; Joana Esponde herri soinulariak Eskiula aitzina Hebentik LAGUNARTE konpainia	Kom-On komunikazio aholku enpresaren hizkuntza garapen proiektua erein proiektua Dinbili-Danbala ikusgarria 4 ikusgarri euskaraz (Etxebarre - Gernika/Arrabal - Gernika/Manciet - Ana non) « Xo... La puce à l'oreille » ikusgarria
11. Ikerketa	traits d'union elkarte Elorri Garat Bidart Eusko Ikaskuntza	amerikastola Haurraren euskal identitatea eta euskararen baliapena : famiariaren transmisioa, eskolaren influentzia Ikerketa laguntzak

III. ERANSKINA

Baztertutako eskabideak

Saila	Eskatzailea	Egitasmoa	Motiboa
11. Ikerketa	Iker	NORANTZ, Euskal hizkera berrien behatokiaren sortzea	Eskatzailea ez da eragile pribatua

4. Proiektu deialdiko antolaketaren eta hautuen

bilduma

Hizkuntza gaietan, instituzio publikoen arteko mugaz gaindiko lankidetzak lau urtez eraman ondotik, Euskal Autonomi Erkidegoak eta Euskararen Erakunde Publikoak, bi erakundeen arteko lankidetzak estuago bat finkatzen duen hitzarmena izenpetu dute 2007ko Otsailaren 7an. Hitzarmen honen helburuetatik bat da bi partaideek eraturiko lankidetzak fondo baten sortzea, Ipar Euskal Herriko eragileen proiektuen sustengatzeko.

Fondoa arin antolatua izan da, eta hitzarmenaren izenpetzearen lau hilabete berantago, 2007 urterako erabakiak hartuak izan dira.

Horretarako, deialdi bakar bat antolatu dute Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), edozein eragile pribatuei (elkarte, enpresa...) zuzendua izan dena.

2007ko Apirilaren 16an, hots txostenen aurkezteko eperako, **82 egitasmo** jaso genituen, **60 eragilek edo pertsonak** aurkeztutakoak.

Aurkeztuak izan diren egitasmoek Hizkuntza Politika Proiektuaren 12 lan erronkak hunkitzen dituzte :

Euskara transmititu

- | | |
|-------------------------------|--------------|
| • Familia bidezko transmisioa | proiektu bat |
| • Lehen haurtzaroa | 5 proiektu |
| • Irakaskuntza | 11 proiektu |

Euskaraz bizi

- | | |
|-----------------------------------|--------------|
| • Hedabideak | 9 proiektu |
| • aisialdia | 12 proiektu |
| • argitalpena | 23 proiektu |
| • toponimia | proiektu bat |
| • euskararen tokia bizi sozialean | 8 proiektu |

Euskara bizkortu

- | | |
|-------------------------|--------------|
| • Helduen euskalduntzea | 3 proiektu |
| • Euskararen kalitatea | 3 proiektu |
| • Ikerketa | 5 proiektu |
| • motibapena | proiektu bat |

Eskaera guztiak banan-banan aztertu dituzte EEP-ko eta Sailburuordetzako zerbitzuek, aitzinetik finkatuak izan ziren eta eragileei azalduak izan zitzaizen **lau irizpide nagusien** arabera.

- Eskatzailearen garrantzi estrategikoa Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileen artean eta esperientzia
- Euskararen Erakunde Publikoaren Hizkuntza Politika Proiektuaren eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu eta lan-lerroekiko lotura
- Proiektuak izan dezakeen eragina, finkatu helburuei begira
- Proiektuaren edukiaren eta aurkeztutako finantza planaren arteko egokitzapena eta autofinantzazioa

Elementu horiek oinarritzat hartuz, eta azterketak eginez eta eztabaidatuz geroz, Euskararen Erakunde Publikoko Administrazio Kontseiluak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ondoko erabakiak hartu dituzte :

- **54 egitasmok** (erran nahi du, aurkeztutako egitasmoen **bi herenak**) erantzun baikor bat jaso dute eta 1.450.000 €-ko fondoak osoki mobilizatzen dute (fondo horri, EEP-k milioi bat euro ekartzen dituelarik eta HPS-k 450 000 euro)
- lagundutako egitasmoak gauzatuko dituzte **43 eragilek**, gehienik elkarteak (hots, aurkezleen %71-a lagundua izango da). 54 erabaki baikor horiek izaera biziki ezberdinetako egitasmo batzuei doazkie; dirulaguntzak 500 €-tik 275.000 €-etara doaz

Aitzinetik finkatutako irizpideen gain, **bi norabide** nagusi jarraituak izan dira:

→ **Jadanik egituratuak diren eragileen laguntzeko nahikundea, egunero euskarazko zerbitzu eskaintza bat bizi arazten dutenak**

- Hitzarmen Berezian sartuak ziren eragileak lagunduz, jadanik esleituak izan ziren dirulaguntzak atxikiz edo emendatuz :
 - **Euskal Irratiak**
 - **Uda Leku** (aisialdi zentroak eta egonaldiak)
 - **AEK** (helduen euskalduntzea)
 - **Euskaltzaindia**
 - **Bertsolarien lagunak**
- Hitzarmen Berezitik lagunduak ez zirela kontutan hartu eta, eragile batzuei esleitutako dirulaguntzak emendatuz:
 - **Seaska** (ikastolen federazioa)
 - **Herria** (euskarazko aldizkaria)

Elkarte horiek egunero euskarazko zerbitzu eskaintza bat bizi arazten dute, heldu diren urteentzat politika publikoa garatzeko EEP-k berriki onartu duen Hizkuntza Politika Proiektuaren sailekin bat egiten duena.

Koherentea eta eraginkorra izateko, garrantzi handi bat zeukan, Hitzarmen Berezia bukatua denetik eta Hizkuntza Politika Proiektua onartua izan direnetik antolatua den lehen deialdi horrek, **jadantik egituratuak diren ekintzen sustatzea** helburutzat ukan dezan.

2007an lagunduak izanen diren 43 eragileen artean, aipatutako 7 eragile horiek, eta gehi daitezkeen hiru burraso elkarteek, **Ikas BI** (irakaskuntza publikoa), **Biga Bai** (irakaskuntza publikoa) eta **Euskal Haziak** (irakaskuntza girixtinoa)(horiek ere jadanik lagunduak Hitzarmen Berezian), « nukleo » historiko eta estrategiko bat osatzen dute, fondoaren hiru laurdenak mobilizatzen dituen (hots 1 111 814 €).

→ **EEP-ren Hizkuntza Politika Proiektuan eta EAE-ren Euskara Biziberritzeko Planan finkatuak diren sail berri batzuen irekitzeko eta esperimintatzeko nahikundea.**

Presentatu proiektuak anitzak izangatik, dispositibo antolatu honen baitan, lehen aldiko, proiektu berrientzat diru laguntzen emateko aukera izan da. Honako hauek dira proiektu berrietariko batzuk :

- **Lehen haurtzaroaren harrera egiturek** eraman 5 proiektu (Hazparne, Baiona, Miarritze, Donibane Lohitzune, Urruña), euskarazko ernatze materialaren eskuratzeko, langilegoaren euskalduntzeko... (16 598 €)
- **Hedabideen sailean** 3 proiektu: Kanaldude eta TVPIren eskutik ikus-entzunezko ekoizpenak, eta Radio Kulturak Internet bitartezko emankizunak (99 135 €)
- **Euskarazko aisialdi eskaintzaren** plantan jartzeko edo egonkortzeko 9 proiektu, gehien bat haurrei eta gazteei zuzenduak : arte plastikoak, musika, dantza, musika tresnak, itsas-bela, hizkuntza jarduerak (61 650 €)
- Haur eta gazteentzat 5 argitalpen proiektu (14 083 €)

• ...
Proiektu deialdi honen aldamenean, EEPk beste 356 677 € sartu ditu, Hitzarmen Bereziaren baitan abian jarri dispositiboarekin segitzeko gisan **ikasmaterialaren arloan** :

- 142 000 € esleitua izan da, Ikas Zentroaren funtzionamendurako
- 214 677 € esleituak izan dira, liburu eta euskarri orotako 12 argitalpen proiekturen ekoizteko

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskararen Erakunde Publikoak partaidetza hitzarmena izenpetu dutenetik lau hilabete iragan diren honetan, finkatu lan egitararen parte handi bat gauzatua da dagoeneko : lehen aldiko proiektu deialdi komun bat eraman da, bi partaideek dosierak aldi berean azterturik, eta esleipen erabakiak elkarraditze osoz harturik.

Derrigorrez erdietsi behar zen lehen esperientzia hori, lagundu proiektu ezberdinen jarraipenarekin aitzina eramanen da, bai eta aurreikusitako beste jardueren obratzearekin, horien artean 2007ko urte bukaeran plazaratzekoak diren inkesta soziolinguistikoaren emaitzak.

Eragile publikoen arteko mugaz gaindiko politika bat egituratzearen bidean, aitzina pauso bat gehiago gauzatu da. Pauso konkretu bat, EEP laguntzen duena haren Hizkuntza Politikaren obratze lanean, eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin duen partaidetzaren segitzea eta aberastea animatzen duena.

5. Euskal Herriko auzapez guzietz igorri gutunaren kopia



PRÉFECTURE
DES PYRÉNÉES-ATLANTIQUES



Baionan, 2007ko maiatzaren 11n
Bayonne, le 11 mai 2007

Monsieur le Maire

L'Office Public de la Langue Basque développe progressivement ses activités dans le cadre de la mise en œuvre de son projet de politique linguistique récemment adopté à l'unanimité de ses membres en décembre 2006. Plusieurs partenariats avec les communautés de communes du Pays Basque portant entre autres sur la promotion et l'usage du basque au sein des municipalités, et s'appuyant pour ce faire sur un réseau de techniciens de la langue, se sont en particulier concrétisés ces derniers mois.

Concernant le cadre légal et réglementaire de l'usage du basque dans la vie publique, nous tenons à vous préciser que la langue basque peut être utilisée aux côtés du français dans les différents documents, tampons ou supports de communications officiels, seuls les intitulés en langue française ayant valeur juridique.

Sur cette base il revient à chaque municipalité qui souhaiterait promouvoir la présence de la langue basque, de définir librement ses choix et ses pratiques qui peuvent aller de l'usage partiel du basque à un bilinguisme généralisé étant entendu que, dans tous les cas de figure, une rédaction complète en langue française reste obligatoire.

Pour toute précision supplémentaire, n'hésitez pas à prendre contact avec les services de l'OPLB ou les techniciens de la langue des collectivités locales.

Dans l'attente, je vous prie de croire, Monsieur le Maire, en l'expression de mes sincères salutations.

Auzapez jauna,

Euskararen Erakunde Publikoak bere jarduerak urratsez urrats garatzen ditu 2006ko abenduan, haren kide guzietan adostu duten hizkuntza politika proiektu obratuz. Hala, azken hilabete hauetan herri elkargoekin hainbat partaidetza gauzatu dira, besteak beste herriko etxeetan euskararen sustapena eta erabileraren garatzeko, euskararen teknikari sare baten medioz.

Bitzita publikoan euskararen erabilpenari doakion arau eta legezko esparruari dagokionez, argitu nahi dugu euskara erabil daitekeela frantsesaren parean, dokumentu, zigilu eta komunikazio euskarri ofizial ezberdinetan, balio juridikoa frantsesezko bertsioek bakarrik dutelarik.

Hau dela eta, euskararen presentzia sustatu nahi lukeen herriko etxe bakoitzari doakio bere jardura eta erabakiak libreki definitzea. Sustapen lan hori, euskararen behin behineko erabilpen batentzat edo elebitasun osora heltzeko helburuarekin eraman daiteke, gisa guztiz nahitaezkoa delarik frantsesezko idazketa oso baten egitea.

Beste edozein zehaztapenentzat, Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuekin edo Herri elkargoetako euskara teknikariek harremanetan jartzeaz ez duda.

Onar itzazu anartean, Auzapez jauna, ene goraintzirik adeitsuenak

Le Préfet du Département des Pyrénées Atlantiques
Pirinio Atlantikoetako departamentuko Prefeta

Marc CABANE

Le Président de l'Office Public de la Langue
Euskararen Erakunde Publikoko Lehendakaria

Max BRISSON

6. EEP eta tokiko aginteen arteko partaidetzak Euskara teknikarien sarearen hedatzea

(egoera 2007ko ekainaren 26ean)

EEPren eginbehar nagusia, podere maila guziak elkartzen dituen eginbide adostu batean, euskararen garapen eta erabileraren aldeko hizkuntza politika publiko baten finkatu eta gauzatzea da.

Helburu horien lortzeko, Euskararen Erakunde Publikoko (EEPeke) Administrazio Kontseiluak **"Hiztun osoak helburu – Haur eta gazteak lehentasun"** izeneko hizkuntza politikako egitasmo bat finkatu du, 2007an abiatuko dena.

Hari beretik, baitezpadakoa da tokian tokiko beharrei erantzun diezaieketen herrien ekimen eta gogoeta ezberdinak EEPeke Euskal Herri mailan bultzatzen duen politikarekin koordinatzea, osagarritasuna irizpidetzat hartuz, giltzadura on baten eta eraginkortasun handiago baten baldintzak sortzeko asmoz.

Koherentzia irizpide honez gain, Erakundeak tokian tokiko animazio teknikoaren indartzeko egitasmoak osoki baliozkotzen ditu. Helburua, datozen urteetan bizi publikoan euskararen sustapenak sortuko dituzten beharrei ahalik eta modurik egokienean erantzutea izanen da.

Euskal Herriko udalek, EEPeke kide den euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikatuan bildurik, euskararen aldeko politika publiko baten egituratzeko ahaleginean nahitaez parte hartzen dute.

Baina udalak ez du bakarrik herrien arteko sindikatuaren bidez Euskal Herri mailan hizkuntza politika baten finkatzean parte hartzen. Ber-denboran, lurralde elkargo gisa, politika horren obratzearen balizko eragile bat da, bere lurraldean.

Bere eskumenari dagozkion hurbileko zerbitzu guziengatik, bere jarduerak hiritarren eguneroko bitzan daukan eraginarengatik, bere jarduerak lurraldeko eragile publiko zein pribatuengan, bai eta ere elkarte-eragileengan daukan eredugarritasunagatik, udala da, dudarik gabe, euskara babestu eta sustatzeko hizkuntza politika baten erdiesten lagun dezakeen eragilerik egokiena.

Esparru horretan sartzen dira EEPeke ipar Euskal Herriko udalekin garatu nahi dituen partaidetzak, elkarte-eragileek alor horretan hartu dituzten ekimenei jarraikiz, herri elkargoak direla horretarako medio.

Herriko etxeetan euskararen garatzea helburu zuen Euskal Konfederazioak duela bost urte abian jarritako ekimena, partaidetza hauen muinean dago. Herriko Etxe boluntarioenganako ekimen honen segitzea eta posiblez emendatzea, bai eta itzulpen mailako beharrei erantzutea dira euskara teknikariei esleitu zaizkien eginkizunetako ardatz nagusiak.

1. Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa
EEPrekiko hitzarmena 2006ko ekainaren 20ean izenpetua izan da. Gidaritza batzordeak 4 auzapez edo herri elkargoko hautetsi biltzen ditu (besteak beste lehendakaria). Euskara teknikaria, Sylvie Chenal, 2006ko urriaz geroztik lanean ari da (denbora osozko langilea).

2. Xiberuko Herri Elkargoa
Lehenagotik euskara batzordean ari diren hautetsiak biltzen ditu Gidaritza batzordeak. Maritxu Lacarrieu, euskara teknikaria bertan lanean hasia da 2006ko azaroaz geroztik (denbora erdizko langilea, beste erdia Ikasen xiberuako adarrarentzat).

3. Errobiko Herri Elkargoa
Euskararen Erakunde Publikoarekiko hitzarmena 2007ko martxoaren 7an izenpetua izan da. Gidaritza Batzordeak 5 auzapez biltzen ditu (besteak beste lehendakaria).
Panpi Olaizola, euskara teknikaria bertan ari da 2007ko otsailaz geroztik (denbora osozko langilea).

4. Baxe Nafarroako Herri Elkargoa
Hitzarmena 2007ko martxoaren 14ean izenpetua izan da.
Gidaritza Batzordeak herri elkargoko 8 hautetsi biltzen ditu (Garazi-Baigorri, Iholdi-Oztibarre, Amikuzeko sektore bakoitz 2 hautetsi).
Euskara teknikaria, Maritxu Errea, bertan ari da 2007ko martxoaz geroztik (denbora osozko langilea).

5. Baionako hiria
EEPrekiko hitzarmena 2006ko abenduaz geroztik izenpetua da.
Philippe Jauréguiberry Euskara teknikaria bere funtzioen betetzen hasiko da uztailaren 1ean.

6. Miarritzeko hiria
Herriko etxeak, bere zerbitzu buru bat izendatu du postu horretan, hiriko bizian euskararen sustapen eta animazio lanak eraman ditzan, jarduera honek eragindako itzulpen lanentzat aurrekontu bat aitzinikusia delarik bestalde.

Hendaiako eta Donibane Lohitzuneko Herriko Etxeekin eta Errobi-Aturriko Herri Elkargoarekin harremanak abian dira.

**Euskararen eta euskarazko irakaskuntzari buruzko hitzarmena
Hezkuntza Nazionaleko Ministeritza eta
Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorraren artekoa**

**7. Sortuz geroztik Euskararen Erakunde Publikoak
joratu jarduerak
euskararen eta euskarazko irakaskuntza eremuan**

Hitzarmenezko eta zuzenbidezko esparru batean kokatzen den eginkizuna

Estatua, lurralde aginteak (Eskualdea eta Departamentua) eta ipar Euskal Herriko hautetsiak biltzen dituen Interes Publikoko Elkargoa da Euskararen Erakunde Publikoa, ofizialki 2004eko azaroaren 24ean sortua izan dena Tokiko askatasunen eta Barne Ministroaren aitzinean, euskararen aldeko hizkuntza politika baten definitzeko eta plantan jartzeko.

Erakunde bakarrean eragile instituzional guztiak biltzen baititu, eta bide batez baliabideak bateratzen baititu, euskararen sustapenerako hizkuntza politika publiko elkarraditu baten garatzeko aukera ematen du antolaketa mota berritzaile honek.

Partaideetariko bakoitzak, euskarari lotu eremuetan dauzkan eskumenak aplikatu ditzake, erreferentziarako esparru komun baten arabera, nor bere ekimena beste eragile publikoen jardueretikiko modu koherentean eraman dezan.

Hizkuntza politika eraginkorrenaren zerbitzuko den desmarxa esperimental honek hozka nabarmena gaititu du, 2006ko abenduan, Administrazio Kontseiluak guzti adostasunean Hizkuntza Politika Proiektua onartu duelarik. **"Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun"** lema, datozen lau urteentzat, Erakunde Publikoaren orientabideak eta lan ardatzak finkatzen ditu.

Beste erronka batzuekin batean (hedabideak, lehen haurtzarora, hizkuntzaren gizarte erabilera, sentiberatzea...), euskararen eta euskarazko irakaskuntza, hizkuntza politika proiektu honen muinean kokatzen da. Euskararen eta euskarazko irakaskuntza gazte belaunaldientzat euskararen ikaskuntzarako tresna nagusia bilakatua baita gaur egun. Euskararen irakaskuntzaren eremua estrategikoa izanagatik dihardu bertan EEPk. Batetik Hezkuntza Nazionala bere Administrazio Kontseiluaren parte baita eta diruztatzen baitu, eta bestetik 2004eko azaroaren 26ean Kontseilu Orokorra eta Hezkuntza Nazionalak izenpetu hitzarmena dela medio.

Hitzarmen honek eginkizun bikoitza esleitzen dio:

- Elkar aditzaerako dispositibo baten ANTOLATZEA
 - Irakaskuntzako hiru sareetan, euskarazko eta euskararen irakaskuntza eskaintzaren garatzea eta egituratzea HELBURU
 - Partaide publikoek martxan jarri beharreko politiken baitan ERAGINEZ
 - Estatuaren eskuduntza eremuan: postuen kudeaketa, irakasleen formakuntza, klase irekitzeak...
 - Tokiko aginteen eskuduntza eremuan: egoitzak, eskoletako langileak (irakasleak ez direnak)...
 - Eskuduntza partekatuen eremuan: ikasmaterialgintza, familien sentiberatzea, eskaeraren neurketa, izen-emate prozedurak...

2/ Irakaskuntzaren alorrean hartu orientabideen eta hizkuntza politikako beste eremuen arteko koherentziaren SEGURTATZEA

Bestalde hitzarmenaren eragilea baita, Euskararen Erakunde Publikoak hainbat eginkizun ditu:

- dagoen irakaskuntza eskaintzari buruzko informazioaren hedapena lagundu;
- irakaskuntza elebidunaz sentiberatze eta sustatze kanpainak antolatu ;
- euskarazko irakaskuntza eskaeraren aztertzeko inkestak antolatu;
- irakaskuntza eskaintzarentzat, epe luzeko programazio baten definitzea eta proposatzea, koherentzia bat, osotasun bat, eta ibilbide osoaren arian irakaskuntzaren jarraipen bat segurta lezakeena;
- hauek oinarri harturik, euskarazko irakaskuntza eskaintzaren karta bat proposatu, epe luzeko programazioa egitura lezakeena : ikasguneen kopuruaren finkatzea eta kokapenaren hautatzea;
- epe luzeko programazioak iragarri guneen irekitzeak prestatu, elkarraditze lan bat eramanez egoitza eta altzarien diruztatzean eskudun diren tokiko aginteekin, familienganako sentiberatze lan bat eramanez, eta izen emate prozedura egokitu bat plantan jarri;
- euskarazko alorrean diharduten elkarteekin eta batez ere hiru sareetako guraso elkarteekin elkarraditze esparru bat plantan jarri;

Tokiko hizkuntzen sailean, oraingoz Frantzian parerik ez daukan hitzarmen honek, elkarraditzerako eremu zabal eta zehatza irekitzen die eragile publikoei, bakoitzak daukan eskuduntzen banaketa aldatu gabe.

Euskararen Erakunde Publikoa sortu denetik eta hitzarmen hau indarrean sartu denetik bi urte iragan direla, irakaskuntza arloan EEPk eramandako jardueren lehen bilduma bat egin daiteke, urte honetako eta heldu den urteko lan egitarauaren hobeki bideratzeko xedez.

Bilduma hau, honako 3 ardatz hauek egituratua da :

I] Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren epe luzeko programazioaren 1. zatiaren definitzea eta obratzea

II] Ikasmaterialaren ekoizpen dispositiboaren egonkortzea

III] Irakaskuntza, hizkuntza politika proiektuaren muinean sartzea

I] Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren epe luzeko programazioaren 1. zatiaren definitzea eta obratzea

"Irakaskuntza eskaintzaren epe luzeko programazio bat definitu eta proposatu, eskaintzaren koherentzia, osotasuna eta jarraipena segurta dezakeena, eta horretan oinarrituz euskararen eta euskarazko irakaskuntzen karta bat proposatu". Hori zen dudarik gabe, hitzarmenaren izenpetzaileek Euskararen Erakunde Publikoari esleitu zioten eginkizunetan berritzaileena.

Lan alor hau da, 2005ean, lehen tasunetan jorratua izan dena, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egoeraren argazki biziki zehatz bat egin izanaren ondorioz, ikasle kopuruka, eskualde geografikoka, irakaskuntza sareka (irakaskuntza Girstinoa, Publikoa, Seaska), irakaskuntza mailaka (eskola, kolegio, lizeo), eredu pedagogikoka (opzioa, oren parekotasuna, murgiltze sistema).

Honako hauek dira diagnostiko honek jakitera eman dituen elementu nabarmenak : euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren sendotzea ikasle kopuruak begiraturik, irakaskuntza mota horren presentzia aldakorra eskualde batetik bestera, irakaskuntza ibilbidearen jarraipenean egon litezkeen hausturak (eskola/kolegio edo kolegio/lizeo), eta orohar oinarriaren urratsez urratsezko egonkortze bat partez 2. mailako irakaskuntzako ikasle kopuru urrien kausa dena.

Diagnostiko honetan oinarriturik, 2005eko urriaren 20ean, EEPko administrazio Kontseiluak Euskararen eta Euskarazko irakaskuntzaren epe luzeko programazioa onartu du, 3 printzipio bermatuz :

- Lurraldearen estaldura koherente baten segurtatzea;
- Irakaskuntza maila ezberdinen arteko jarraipenaren bermatzea;
- Familien hautu librearen bermatzea.

Dokumentu honek:

a) 2. Mailako irakaskuntzarentzat (Publikoa, Irakaskuntza Katolikoa, Seaska Federakuntza)

- Murgiltze eta sistema elebidunentzat kopuru **iragarpenak ematen ditu**:
 - 2010-2011rako kopuruek gutxienez bikoiztu behar lukete (lehen mailako eskoletan jadanik dagoen oinarriagatik, egonkortzea aitzinikus daiteke)
- Beren harrera ahalmena emenda dezaketen eskolak, edo sail elebidunak sor ditzaketen eskolak **begizatzen ditu**, lurralde osoan CM2/6.aren arteko jarraipenaren bermatzeko:

- 2010-2011rako 10 eskolen harrera ahalmenaren bikoiztea (partez edo osoki) et abeste 8ren sortzea.
- Irakasleen formakuntza mailako beharrak **identifikatzen ditu** datozen 5 edo 6 urteentzat, bilakaera honi aurre egiteko:
 - Urtean 4 eta 6 posturen arteko bataz-beste (20 eta 30 postu aitzinikusi behar dira orotara).

b) Estatuarekin kontratupean diren irakaskuntza pribatuko lehen mailako eskolentzat (Irakaskuntza Girstinoa eta Seaska Federakuntza)

- Partaidetza proposamen konkretuak **eginak izan dira** dauden guneen egonkortzeko eta berrien sortzeko:
 - Sentiberatzea, irekitze proiektuentzat laguntza teknikoak...
- Lehen mailako postuen banaketa irizpideak finkatzen dituen Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko azterketa taula komuna **onarrarazi du.**

c) Lehen mailako eskola publikoentzat

- Gune berrien irekitzeko lehentasunak eta segitu beharreko urraspideak **definitu ditu:**
 - Herriko etxeekilako harremanen lotzea, eskolen begiztatzea, familien galdekatzea...

I.1) 2005ean bozkaturia izan denetik, programazioaren obratzearen bilduma, sare publikoko lehen mailako irakaskuntzarentzat

Epe luzeko programazioa definitu zelarik, sare publikoak bere irakaskuntza eskaintza ipar Euskal Herrian 145 guneren arian egituratzen zuen. Gune hauen artean, 49k irakaskuntza elebidun bat, euskara/frantsesa, proposatzen zuen.

Irakaskuntza elebidunik proposatzen ez zuten 96 guneen artean, irekitze aukeren aztertzea erabaki zen honako toki hauetan :

- irakaskuntza elebidun gutxien zuten lurraldeetan : BAMen, Hiriburu eta Bidaxuneko eskualdeetan (hurbileko guneen identifikatzea) ;
- eskaintza oparoagoa duten lurraldeetan : ikasle ahalera azkarra luketen herri eta HAEEak.

Lurralde hauetan, epe luzeko programazioan definitutako desmartxa, 35 auzapezei aurkeztua izan zaie, 24 gune potentzialentzat:

- 8 gune potentzialentzat, auzapezekiko harremanek ez dute segidarik ukan, edo auzapezek gurasoen galdetegia gibelatu nahi izan dute ;
- Bidaxuneko Herri elkargoan, auzapezek familienganako inkestak eginak izan daitezzen onartu dute, euskararentzat eta okzitanierarentzat, gune irekitze baten aukeren aztertzeke Bidaxuneko eskolan (2007ko udazkenean gauzatzekoa);
- Mugerreko Herriko Etxeak familien galdezkatzea erabaki du (2007ko larrazkenean antolatzekoa) ;
- Euskararen Erakunde Publikoak, Herriko Etxeekin partaidetzan, 13 inkesta eraman ditu, honako urraspide hauen arabera:

→ **Bi inkesta Baionako herrian:**

- ✓ Inkesta bat 2006ko maiatzean, irakaskuntza elebidunik (euskara/frantsesa) eskaintzen ez zuten Eskuin hegiko 7 eskoletan. Eskuin hegiko zonaldean, bigarren gune elebidun baten irekitzeko aukeraren aztertzea zen helburua (aukerazko 5 gunetan) :
 - 331 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2. eta 3.);
 - 173 erantzun (%52ko parte hartzea);
 - 69 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzeari aitzinikusten dute (erantzunen %40, inkestatuen %21).

Herriko etxearekin elkarraditzean, Charles Malégarie eskolan dira begiztatuak, Eskuin hegian sail elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak.

Sail elebidunaren irekitzea 2006ko sartzeari erabakitzen du Ikuskaritzak.

- ✓ Inkesta bat 2007an, irakaskuntza elebidunik (euskara/frantsesa) eskaintzen ez zuten Ezker hegiko eskoletan. Ezker hegiko zonaldean, Jean Moulin eskolaz gain, bigarren gune elebidun baten irekitzeko aukeraren aztertzea zen helburua (aukerazko 4 gunetan) :
 - 260 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2. eta 3.);
 - 115 erantzun (%44ko parte hartzea);
 - 46 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzeari aitzinikusten dute (erantzunen %40, inkestatuen %18).

Herriko etxearekin elkarraditzean, Albert I. eskola da begiztatua, Ezker hegian sail elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak eskaintzen dituelakoan.

Sail elebidunaren irekitzea 2006ko sartzeari erabakitzen du Ikuskaritzak.

→ Bi inkesta Miarritzeko herrian:

- ✓ 2006 urtarrilean, inkesta bat, Alsace Lorraine ama eskolako gurasoei egina, irakaskuntza honen jarraipenaren segurtatzeko Therme Salin eskolako lehen mailan.

Herriko etxearekin elkarraditu ondoan, sail elebidun baten irekitzea erabaki du Ikuskaritzak 2006ko sartzean, bien bitarteko egitura bat antolatzea beharrezkoa izan delarik.

- ✓ Inkesta bat 2006ko azaroan, euskara/frantsesa sail elebidunik ez zuten lehen mailako 4 eskoler egina, Reptou eta Alsace - Thermes Salins gunez gain, hiru garren gune elebidun baten irekitzeko egingarritasunaren aztertzeko (4 kokagune aukeran):
 - 226 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2. eta 3.);
 - 88 erantzun (%41eko parte hartzea);
 - 34 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzea aitzinikusten dute (erantzunen %39, inkestatuen %16).

Herriko etxearekin elkar aditzean, Paul Bert - Michelet eskola da begiztatua, Miarritzeko hirian hirugarren sail elebidun baten aterpetzeko baldintzarik hoberenak eskaintzen dituelakoan.

Sail elebidunaren irekitzea 2007ko sartzean erabakitzen du Ikuskaritzak.

→ Inkesta batzuk Angeluko herrian:

2006ko martxo-apirilean egina izan da irakaskuntza elebidunik Euskara/frantsesa proposatzen ez zuten 6 eskoletan, Edouard Herriot-n eta Jean Jaurés eskolez gain hirugarren gune elebidun baten irekitzeko aukeren aztertzeko (4 kokagune aukeran):

- 379 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2. eta 3.);
- 201 erantzun (%53ko parte hartzea);
- 56 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzea aitzinikusten dute (erantzunen %28, inkestatuen %15).

Evariste Galois eskola da Herriko Etxearekin begiztatua izan dena, Angeluko 3. ikasgune elebiduna izateko, gune egokiena izanki. Akademiako Ikuskaritzak sekzio elebiduna 2007ko eskola sartzean irekitzea erabaki du.

→ **Inkesta bat Bokaleko herrian:**

2006ko abenduan, herriko 3 ama eskoletan eramana izan da gune elebidun (euskara/frantsesa) baten irekitzearen egingarritasunaren aztertzeke, gaur egun ez baita batere (3 gune aukeran):

- 149 haur jokoan (ama eskolako 1. urtean, 2. eta 3.);
- 79 erantzun (%53ko parte hartzea);
- 39 familiek, beren haurra sail elebidunean sartzea aitzinikusten dute (erantzunen %49a, inkestatuen %26a).

Eskola batean edo bestean sail elebidun baten irekitzeko aukerari buruz, inkesta honen argitara, Herriko Etxeak ez du dagoeneko erabakirik jakitera eman.

→ **Zazpi inkesta ama eskola bat daukaten herri edo HAEEetan, sail elebidun baten irekitzeko egingarritasunaren aztertzeke, herriko eskola edo HAEE horietan.**

Emaitzak, ondoko taula honetan bilduak dira:

Guneak	Haur kopurua orotara	Erantzun kopurua	Irakaskuntza elebiduna nahi duten familia kopurua	Inkesta ondoko erabakia
Arbona	28	16	8	Irekitzea 2006ko sartzean
Bidarte	133	80	44	Irekitzea 2006ko sartzean
Getaria	19	19	15	Irekitzea 2006ko sartzean
Amorotze	24	20	9	Irekitzea 2006ko sartzean
Lehuntze	48	28	18	Irekitzea 2007ko sartzean
Urketa	48	28	16	Irekitzea 2007ko sartzean
Gabadi Amenduzeko HAEE	25	18	13	Irekitzeko erabakiaren aztertzea iraileko beste erabakien kari
Orotara	325	209	123	

Familiei egin galdeketa 13 aldiz eramana izan da, epe luzeko programazioa baieztatua izan denetik (urte bat eta erdi). Eta gehienetan, inkesta hau egin aitzinetik edo ondotik familiei zuzendu informazio bilkurak egin dira, herriko etxe, ikuskari eta Hezkuntza Nazionalarekin lankidetzan estuan.

Hainbat ondorio atera daitezke dagoeneko:

- familiei zuzendu inkestak eraman aurretik hainbat lanen betetzea beharrezkoa da : herriko etxeekin kontaktuak, eta informazio uneak zuzendariekin eta irakasle taldeekin... prestaketa urrats honen kalitate ona ezinbestekoa da irekitze proiektuaren lorpenerako;
- kokapen bat baino gehiago proposatua delarik, eskaera badago batez ere haurra dagoen eskola berean egiten bada irekitzea. Familia guti da, bere haurra gunez alda lezakeena irakaskuntza elebidun bat segitzearen truk ⇒ eskaera potentziala, denetan bada, baina higikortasun urrikoa eta barreatua da;
- eramandako 13 inkestetan, sail elebidunean haurra ezartzea pentsatzen zuen familia kopurua, aldi oro nahikoa zen irekitze baten justifikatzeko;
- herriko etxeak bere sostengua ekarri duen 12 guneen kasuan, irekitze erabakia ondoko sartzera kontutan hartu du Hezkuntza Nazionalak (2006eko sartzera, eta 2007ko sartzera);
- 2006 sartzera egin 6 irekitzeetan, 2006ko irailean sail elebidunean izena eman duten familien kopurua, inkestan beren oniritzia eman zuten familien kopurura baino azkarragoa izan da aldi bakoitz (2007 sartzera iragarri irekitzeekin konfirmatzekoa den oharra).

Guneak	Izen emate xedeak inkesta denboran	Gauzatutako izen emateak 2006/09/06ean
Arbona	13	17
Bidarte	55	58
Getaria	19	21
HAAE Amorotze	15	20
Malégarie Baiona	15	24
T. Salins Miarritze	11	11
Orotara	128	151

I.2) 2005eko urrian onartua izan denetik, sare publikoko 2. mailako irakaskuntzaren programazioaren obratzeaz bilduma

Epe luzeko programazioa hainbat guneetako zuzendarier presentatua izan zaie: Cassin lizeoa, Atharratze, Maule, Donibane Garazi, Baigorri, Kanbo, Hazparne, Angelu Endarra, Miarritzeko Fal eta Baionako Marracq kolegioak.

Horren ondorioz abiatu dira:

- Atharratze eta Mauleko kolegioetako zuzendariekin elkarraditzean eramandako azterketa lana, irakaskuntza elebiduneko eskaintza Atharratzeko ikasleei luzatzeko aukeren ikertzeko xedez.

➔ Ikasle kopuruen azterketa, lankidetzaren baten lortzeko aukeren ikertzeaz, CM2tik landako orientatzeen azterketa Aharratzeko eskualdean....

Mementoko lan horrek ez du segidarik ukan eta arra bultzatzekoa da.

- Donibane Garazi eta Baigorriko kolegioetako zuzendariekin elkarraditzean eramandako azterketa lan bat, irakaskuntza elebiduneko eskaintza Baigorriko ikasleei luzatzeko aukeren ikertzeko.

➔ Ikasle kopuruen azterketa, lankidetzaren baten lortzeko aukeren ikertzeaz, CM2tik landako orientatzeen azterketa Baigorriko eskualdean...

Gaur egun, Baigorriko 6. eta 5.eko ikasleak Garazira doaz euskararen eta euskarazko irakaskuntza orenen hartzera. Heldu den 2007ko eskola sartzeko antolakuntza definitzen ari dute.

- Elkarraditzean eramandako azterketa lan bat, Fal, Endarra eta Marracq kolegioetako zuzendariekin:

➔ Kopuruen azterketa, epe luzeko iragarpenak jadanik dauden Fal eta Marracq-eko sail elebidunentzat, Angeluko Herriot eskolan inkesta Endarra kolegioan sail elebidun baten irekitzeko egingarritasunaren aztertzeko.

2006ko martxoan eramana izan den azterketa honek 2006ko sartzeko irekitze baten gauzatzeko baldintzak hor ez zeudela agerian ematen zuen. 2007ko martxoan berriz eginik, lan berak kontrako ondorioa ezagutzera eman du 2007 sartzeko. Bilduma tekniko bat igorria izan zaio Akademia Ikuskaritzari.

Ondotik, Errektoritzak sekzio elebidun baten irekitzea 2007ko eskola sartzeko erabaki du.

- Haurrak Hazparne, Kanbo eta Marracq-eko kolegioetako 3.eko klasean, sail elebidunean, dituzten familienganako galdeketa, Cassin lizeoan, 2006ko sartzeko sail elebidunaren irekitzearen egingarritasunaren aztertzeko.

Baionako Cassin lizeoko balizko sail elebidun bat elika lezaketen 4 kolegio publikoetan eramana izana da.

Emaitzak aztertutik, Baionako Cassin lizeoan euskara/frantsesa sail elebidunaren irekitzea erabaki du Errektoretzak 2006ko sartzeko.

I.3) Irakaskuntza Giristinoko eskolentzat, programazioaren obratzearen bilduma

Onartu izan bezain laster, programazioa, Irakaskuntza Giristinoaren Departamentuko Zuzendaritzari (DDEC) aurkeztua izan zaio.

Azken honek adierazi arazoak, irekitze berriei buruzkoak baino, dauden gunetako postuen kudeaketari buruzkoak ziren.

2006 eta 2007ko urteentzat, orduko irakaskuntza elebidunik eskaintzen ez zuten gunentzat irekitze berririk ez zuen aurreikusia Irakaskuntza Giristinoko Zuzendaritzak.

Hau dela eta, lankidetzak teknikorik ezin izan da garatu EEP eta DDECaren artean, 2006ko udaberrian BAMEko 1. maila eta 2. mailako zuzendarien sentiberatze eta informatze bilkura izan ezik (bi egiturek antolatu zutena).

Erabakia da, lan honekin segitzea BAMEko zonaldea lehenetsiz, lehen mailako bi eskolek (bata Angelun, bestea Miarrizten) baizik ez baitute sail elebidun bat.

Irakaskuntza honen jarraipenaren arazoa, 2008ko sartzetik goiti gogoetatuko da.

I.4) Seaska federazioko eskolentzat, programazioaren obratzearen bilduma

Irakaskuntza Giristinoaren kasuan bezala, Seaska federazioko arduradunek gune berrien irekitzeentzat lankidetzak teknikoentzat baino, postuen kudeaketa eta irakaskuntzen antolaketari lotu galderentzat egin diote dei Euskararen Erakunde Publikoari.

Haatik, programaketaren baitan, EEPko Administrazio kontseiluak baimendurik, ikastoletako irakaskuntza moldearen berezitasunak kontutan harturik, postuen banaketak kudea litzakeen taula baten eraketa behin baino gehiagotan aztergai izan da Akademia Ikuskaritzako teknikariek eta Seaskako Federazioko arduradunekin egin bilkuretan.

Lehen mailako postuentzat abiatutako lan hori, emeki emeki beste gai batzuer zabaldu zaie, eta gaur egun partaide guziek Seaska eta Hezkuntza Nazionalaren arteko akordio batetara heltzea dute helburu, modu honetan egitura litekeena:

- 1) Esparru juridikoa, eta ikastoletan indarrean dagoen antolaketa pedagogikoen azalpen bat;

- 2) Lehen mailako postuen banaketentzat kalkulu arau partekatuen definitzea (irakasleen postuak eta zuzendaritza orenak) ;
- 3) Federakuntzako 2. mailako 4 guneentzat, irakaskuntza baliabideen banaketei buruzko kalkulu arau partekatuen definitzea (irakasleen postuak eta zuzendaritza orenak) ;
- 4) Gune berrien irekitzeentzat, urraspide eta egutegien definizioa;
- 5) Hizkuntza gaitasunen ebaluatzeko urraspideen definizioa, elkar aditzean obratu beharko dena.

Gauden heinean, lehen urrats batean, Akademiako Ikuskaritza eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuen artean lan egitea izan da hautatu den metodoa, ondotik Seaskarekiko elkarrizketaren irekitzeko oinarri izan daitekeen akordio proposamen baten burutzeko.

Dokumentu zirriborro bat, gorago aipatu 5 puntuei buruzkoa, Seaskari igorria izan zaio 2007ko maiatzaren 10ean, aski aitzinatuak diren puntuei buruzko elkarrizketak abia daitezen; beste puntuei buruzko prestaketa lana aitzina eramanen den bitartean.

Baieztatua litekeen halako akordio batek, sartzeko ezberdinen prestaketa lanak bidera litzake. Hari esker Hezkuntza Nazionala et Seaskaren arteko harremanak tresna partekatu batzuetarik abiatuz eraiki litezke dudarik gabe.

II] Ikasmaterialaren ekoizpen dispositiboaren egonkortzea

2000. urtean Hitzarmen Bereziaren izenpetzeak, ikasmaterialaren ekoizpen dispositibo baten oinarriak eratu zituen, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearen ondorioz, egonkortu zena.

2001. eta 2006. urteen artean, botere publikoek (2001etik 2004ra obragintza publikoa eta 2005 eta 2006ean Euskararen Erakunde Publikoa) 807 000€ sartu dute argitalpen programen argitaratzean.

- 17 iruditegi / irudiekilako afixak
 - 9 eskuliburu
 - 5 azterketen bilduma (Ega)
 - 4 liburu irakasle eta ikasleentzat
 - 16 jarduera kaiera ikasleentzat
 - 8 haur literatura argitalpen
 - 5 KD / filma
- } 64 ekoizpen
pedagogiko

Horren obratzea hiru eragilek segurtatu dute:

• **Ikas Zentro Pedagogikoak eraman proiektuak**

→ Jadanik argitaratuak

▪ Lehen Mailako irakaskuntza

- « *Gure ikasgelako lexikoa* » 800 irudiz eta 800 hitzek osatu iruditegia, idazkira hurbiltzeko eta irakurtzen trebatzeko. Retz-en *Le lexique de ma classe* fitxategitik egokitua.
- « *Irakurgaiak 3. zikloa* » Lehen mailako 3. zikloan irakurtzen trebatzeko eta euskararen lantzeko eskuliburu. CRDPrekin argitaratua.
- « *Astronomia* » fitxa bilduma, ikasleen fitxak, irakaslearen gida eta bi afixa
- « *Ingurumenari buruzko afixak* »
 - Oihanaren begiratzeko eginbideak
 - Munduko oihan moten kokaguneak
 - Uztaritzeko oihana
 - Euskal Herriko zuhaitzak
 - Gure mendietako landaredia
 - Oihaneko animaliak
- « *Ingurumena* » Fitxa bilduma, ikasleen fitxak, irakaslearen gida eta bi afixa
- « *Matematikak lantzen* » j'apprends les maths bildumaren itzulpena (Retz argitalpena). CP, CE1, CE2, CM1, CM2-ko ikasleei zuzendu fitxategia.
- Etxeaz lau afixa egon gela, sukaldea, lo gela, garbi gela.
- « *Erdi Aroa eta Nafarroako erresuma* » Historia 3. zikloa saileko lehen atala. Akitaniako CRDPrekin argitaratua.
- Haur literaturako 3 liburu lehen mailako II. zikloko ikasleer zuzenduak:

- « *Otsoa itzuli da !* » Geoffroy de Pennarten Le loup est revenu ! liburuaaren itzulpena.
- « *Otso bihozbera* » Geoffroy de Pennarten *Le loup sentimental* liburutik itzulia.
- "Yakouba" Thierry Dedieuren Yakouba liburuaaren itzulpena.
- Zientzietako 6 hormirudiak II. eta III. zikloetako ikasleei zuzendutakoak:
 - « Uraren zikloa/ Aroa »
 - "Mendia / Itsas bazterra"
 - "Ordokiak eta muinoak / Ibai-errekak"
- KDetan grabatu 18 ipuin, irakurketa liburutik ateratuak II. zikloko ikasleei zuzendua
- *Marijane kanta zan* liburutik atera 5 ipuin KDean grabatuak lehen mailako III. zikloko ikasleei zuzendutakoak.
- II. eta III. zikloetako ikasleei zuzendu 2 jardueren kaiera II. eta III. zikloetako ikasleentzat:
 - « *Biologia CP* » Bordas argitalpeneko (Tavernier bilduma) Biologie jarduera kaieraren itzulpena;
 - « *Fisika eta teknologia CP* » Bordas argitalpeneko (Tavernier bilduma) Biologie jarduera kaieraren itzulpena.
- Lehen mailako irakaskuntzako II. eta III. zikloetako ikasleei zuzenduriko haur literaturako 5 liburu :
 - « *On dagizula, Untxi Jauna !* » Claude Boujonen liburuaaren itzulpena.
 - « *Eskimoaren mezua* » Françoise Richard eta Thomas de Costeren Le message de l'Eskimo liburuaaren itzulpena.
 - « *Dorre luze iluna* » François Guillaumonden La Haute tour sombre liburutik itzulia.
 - « *Otto* » Toni Ungerer-en Otto liburuaaren izulpena.
 - « *Beldar gosetia* » Eric Carle-en The very hungry caterpillar liburutik itzulia.

▪ 2. Mailako irakaskuntza

- « *Matematikak kolegioan* » 6., 4., 3.-eko ikasleei zuzendu matematikako esku liburuak, Math 4^{ème} esku liburuaaren itzulpena Nathan-ek argitaratua, (Transmath bilduma).
- "Hautatzen ikasteko" 5.eko ikaslea bere bidearen hautatzen laguntzeko, eskola mailan eta hautu profesionaletan.
- 1997tik 2002 arteko EGA azterketen bilduma zuzenketekin, Euskaltzaindiak antolatzen duena. 2. mailako ikasler zuzendu esku liburua.
- « *Iturritik Itsasora* » urari buruzko film dokumentala Yann Trelu eta Simone Grasek egin Euskal Herrian, Biarritz eta Breizhian gaindi.

➔ Prestaketa lanetan

- Bi jarduera kaiera CE2ko ikasleentzat, Bordas argitalpen baten itzulpena (Tavernier bilduma):
 - Biologia
 - Fisika eta Teknologia

- Urari buruzko Kutxa, Adour Garonne-en L'eau en trois dimensions-aren itzulpena: fitxen bilduma, irakaslearen gida liburua eta II. eta III. zikloetako ikasleei zuzendu fitxak
- Gure ikasgelako lexikoa KD-ROM euskarrian CP eta ama eskolako 3. mailakoentzat, RETZek argitaraturikakoa (iruditegia bere paperezko bertsioan 2004ko argitalpen egitarauan zen)
- Teknologiako fitxak II. eta III. zikloko ikasleei zuzenduak (13 modulo)
- « *Pello eta Otsoa* » KD eta liburu batek osatutako ipuin musikatua, Prokovieven Pierre et le Loup lanaren itzulpena

- **Ikas Bi elkarteak ekoitzi argitalpen proiektuak**

- Jadanik argitaratua

- Historia Geografia 4. eta 3.ekoentzat Hatier bildumatik itzulia
- « *Iguzki Lore* » zientzia eta teknologia kaiera Tournesol bildumaren itzulpena (Hatier argitaletxea), 3. zikloko ikasleei zuzendua, 2. partea
- Geometria eskuliburua Connaitre la Géométrie bildumatik itzulia (Hatier argitalpenak) II. eta III. zikloetako ikasleei zuzenduak.
- Matematikako jarduera fitxak, CP , CE1, CE2, CM1 eta CM2ko ikasleei zuzenduak, Ermel bildumatik itzuliak (Hatier argitaletxea).

- Prestaketa lanetan

- « *Iguzki Lore* » zientzia eta teknologia kaiera Tournesol bildumaren itzulpena (Hatier argitaletxea), 3. zikloko ikasleei zuzendua, 3. partea.

- **CRDPren argitalpen proiektuak**

- Prestaketa lanetan

- « *Mundua ikertu eta Euskara ikasi* » : irakaslearentzat gida liburua, ikasleentzat jarduera fitxak eta KD-ROMa, a²ma eskolako ikasleentzat (Hacala anderearen eskutik).

2007an EEPk proiektu deialdia arra berritu du. Programa berri bat baieztatua izan da, 219 000 €koa 15 bat ekoizpenentzat. Bigarren sei hilean, beharren neurtze kualitatibo bat egin beharko da, ondoko urteko lehentasunen definitzeko. CRDPa, ikuskari taldea eta Ikas, proiektu deialdiari estu lotuak zaizkio. 6 urte hauen arian eginiko indarrari esker, denen ustez, 1990eko hamarkadaz geroztik zegoen beranta harrapatu da, batez ere lehen mailari dagokionez.

Aldi berean, Ikas zentro pedagogikoa egonkortu du, Ikas/Errektoritza/EEPren arteko hitzarmenaren izenpetzeak 2006ko ekainaren 16an.

4 urterentzat izenpetua izan den hitzarmen honek, Errektoretzak (bi posturen diruztatzea) eta EEPk (funtzionamendurako diru laguntza) banatu laguntzak

segurtatzen ditu, Ikas zentroak esleitua izan zion zerbitzu publikoko eginkizuna berma dezan ikasmaterialaren eremuan.

2006ko kontu-urtearen arian, Errektoretzak eta EEPk luzatu laguntzen batuketa Ikas Zentroaren funtzionamendurako 259 000 €koa zen. Honi gehitzen bazaizkio 6 urtez geroztik argitalpen programen finantzamendurako eman laguntzak, erran daiteke 400 000€koa dela ikasmaterialaren zerbitzuko, urtean banatu diruztatze publikoa.

Ikas Zentro Pedagogikoaren egonkortzea, Uztaritzeko herria obratzaile den eraikuntza proiektu batekin segituko da, Ikasek egoitza egoki batean lan egin dezan. Egitasmo horren ezaugarri teknikoak eta diru mailakoak, elkarraditzean orai berean eztabaidatzen ari dituzte erakunde publiko ezberdinek.

III] Irakaskuntza, hizkuntza politika proiektuaren muinean sartzea

2006ko abenduan kide guziek adosturik, datozen lau urteentzat orientabide eta lan ardatzak finkatzen dituen hizkuntza politika proiektua onartu du Euskararen Erakunde Publikoak.

Irakaskuntza eta hizkuntza politikako beste gaien (orotara 12 dira) arteko koherentiaren eta osagarritasunaren segurtatzea zen irakaskuntza atalaren definitzeari zegokion ariketa.

Irakaskuntza kapitulu horrek orohar, lehenago idatzi zen programazioko lehen atalean definitu elementuak arra hartzen eta garatzen ditu.

"Euskal Herrian, euskarazko irakaskuntzaren garapenaren lehen ondorioa izan da euskararen gainbeheraren geldiaraztea belaunaldi gazteenen baitan. Horrela, eskolak hartu du, neurri batean, familiaren segida transmisio prozesuan, eskolan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapenak familia mailako transmisioaren gainbehera parte batean motelduz. Familia euskaldunak gero eta gutxiago dauden egoera batetan, euskara erakutsi nahi duten familiek gehienetan kalitatezko transmisio baten egiteko gaitasunik aski ez dutenean, euskarazko irakaskuntza hizkuntzaren iraupenerako ezinbesteko tresna bilakatu da. Gaur egun euskara dagoen egoera diglosikoan, eskolako giroak oreka berriz jartzen du parte batean, euskara irakaskuntzarako hizkuntza bilakatzen den neurrian. Euskalduna ez den familia baten kasuan, eginkizun konpentsatzailea betetzen du. Familia euskaldun baten kasuan, familiaren eragina azkartzen du eta hizkuntzaren eskuratze urraspidea osatzen. Euskarazko irakaskuntza beharrezkoa da euskara ama hizkuntza daukan haurren kasuan ere. Naturala baizik ez den ikaskuntza ez da nahikoa hiztunaren motibazioaren sustatzeko. Motibazio maila nahiko batetara heltzeko, ama hizkuntzak, eskuratze urraspidearen memento batean, kultura hezkuntzaren hizkuntza izan behar du. Hala ez bada, berezko hiztunak, hizkuntza horretan duen kultura eskasa, hizkuntza beraren akats baten gain jartzen du usu. Hortik, ama hizkuntzaren gutiesteko arriskua sortzen da, eta hizkuntzaren erabiltzeko motibazioaren galtzea. Eskurapen prozesua osoa izateko, sortzetik mintzatzen dutenek lehen eskurapenaren osatzeko ahala ukan behar lukete, bigarren mailako ikaskuntzaren bidez, ama hizkuntzan hiztun jakintsuak bilakatzeko gisan. Orduan, bi prozesuak molde osagarrian elkartzen dira, ikaskuntzaren osotasuna eta erabiltzeko motibazioaren hein nahikoa bermatzen dituen zirkuitu bat osatuz.

*Hizkuntzen bizkortasuna beren funtzionaltasunean dago, eta hizkuntza batek funtzio gehiago bete eta irauteko eta garatzeko aukera gehiago du. Hizkuntza irakasia izateaz gain, irakaskuntzarako hizkuntza ere bilakatuz, euskarak funtzio nagusi bat lortzen du, kultur funtzioa, irakaskuntzan erabili hizkuntza literarioak betetzen duena. Denbora berean, gizartean bere tokia hartzen ari da, gizarte-estatutua eta prestigioa erdiesten hasten da. Horregatik, hizkuntza politika proiektuaren erronka da **hizkuntzaren ikaskuntza eskolari esker egituratzea eta garatzea, eskola delarik denbora***

berean hizkuntza irakatsi gisa eta irakaskuntzarako hizkuntza gisa euskararen transmisioa ahalbidetzen duen ezinbesteko tresna."

Irakaskuntza ataleko orientabide estrategikoak eta lan ardatzak modu honetan eratuak izan dira:

1/ Familiak euskararen transmititzen lagundu.

1.1. Aitamak eta gurasogaiak, beren euskarazko gaitasunen hobetzen lagundu :

- ✓ Aitamei eta gurasogaiei zuzendu ikastaro bereziak proposatu, helduen euskalduntzeko egiturekin partaidetzan :
 - Formakuntza taldeak sortu, familien tipologiari egokitzuz, gurasogaiak, aitamak, haurren adina, bakoitzaren hizkuntza gaitasunak eta bi bizilagunenak kontuan hartuz...
 - Taldeentzat egokia den formakuntza eskaintza berezia plantan jarri, helduen euskalduntze egiturekin partaidetzan, formakuntzaren edukiak, metodoak eta ikasmaterialak publikoari eta xedeari egokitzuz.
 - Erabilpena formakuntzaren muinean jarri, egun guzietako giroa eta egoerak bersortuz, hurrekin saio bereziak antolatuz... egun guzietako erabilera errazteko eta bultzatzeko gisan, 3 xedetan garrantzia berezia jarriz : euskara hurrekilako hizkuntza izatea, euskara bizilagunen arteko hizkuntza izatea, euskara familia osoaren hizkuntza izatea, anai-arreben artean ere.
- ✓ Familiak lagundu ikastaldietan parte hartzen.

1.2. Transmisioaren errazteko eta laguntzeko tresnak, metodoak eta baliabideak eskaini :

- ✓ Beharrezkoak diren tresnak, metodoak eta baliabideak definitu eta sortu :
 - Sail hortan jadanik badauden baliabideen eta esperientzien azterketa kalitatibotik abiatuz, eduki ezberdinak kontutan hartuz (ipuin, ixtorio, komiki, kantu, euskaraz haurraren hezteko aholku liburu...) eta euskarri ezberdinak (liburu(tto), cd, cdrom, tailer bereziak...), lurraldearen eta publikoaren beharrei erantzuteko beharrezkoak diren moldaketak eta ekoizpen osagarriak definitu eta gauzatu.
- ✓ Eskaintza hau publiko zabalaren eskuetan ezarri :
 - Transmisioa laguntzeko tresnen eskaintza aitamei ezagutzera eman : webgune, newsletter, katalogo, cd...
 - Sentsibilisazio eta formakuntza ekintza bereziak antolatu, eskaintza hurbiltzeko begiztatu publikoarengana : bilkura publikoak, irrati emankizunak, telebistarako erreportaiak, kazeta ostoa bereziak...

1/ Familiei eman, lurralde osoan, beren haurrentzat euskarazko irakaskuntza baten hautatzeko aukera, euskarazko irakaskuntza eskaintza garatuz eta egituratuz.

1.1. Euskarazko irakaskuntza eskaintza garatu :

- ✓ 2005ean finkatu euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatze eta egituratzearen epe luzeko programazioaren lehen zatiaren obratzen jarraiki :
 - Irakaskuntza publikoarentzat, irakaskuntza girixtinoarentzat eta Seaskarentzat definitu jardunbideak eta egutegiak gauzatu, lehen mailan zein bigarreanean, adostuak izan diren 3 printzipioei jarraikiz :

- Familien hautu librea.
- Lurralde osoaren estaltzea.
- Irakaskuntza maila ezberdinen arteko irakaskuntzen jarraipena.

(ik. eranskinetan norabide nagusiak laburbiltzen dituzten sintesia grafikoak).

- ✓ Gisa berean, programazio lan bat eraman, orain arte aztertu gabe dauden beste irakaskuntza sailetan :
 - Formakuntza tekniko eta profesionaletan.
 - Laborantzako irakaskuntza.
 - Goi mailako irakaskuntza.

1.2. Etorkizunari begira, euskarazko irakaskuntzarako irakasle postu beharrak aitzinetik begiztatu eta bete :

- ✓ Euskarazko klase irekitzeak aitzinetik ikusiz (ikus programazioa).
- ✓ Dauden euskarazko irakasguneetan, beharrezkoak izanen diren postuak aitzinetik begiztatuz.
- ✓ Irakaslegoa adinaren arabera sailkatu, ondoko urteetako postu beharren aitzinikusteko.

1.3. Euskarazko irakaskuntzen antolakuntza egokitu :

- ✓ Kolegio eta lizeoetan abiatu irakaskuntzen antolaketaren azterketa kualitatiboa bururatu (euskarazko oren kopuruak, gaiak, ikasle taldeak, egutegiak...).
- ✓ Azterketa hortarik abiatuz, irakaskuntzen egokitze plangintza adostu eta obratu.
- ✓ Gisa berean jokatu lehen mailari doakionez.

2/ Irakasleak, euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten tresnak eta gaitasunak eskuratzen lagundu.

2.1. Euskarazko irakasleen formakuntza beharrei erantzuten lagundu :

- ✓ Jatorrizko formakuntzan, biharko irakasleen hizkuntza gaitasun osoaren eskuratzea segurtatu :
 - Ikas zentroekin partaidetzan, lehen mailan zein bigarreanean euskaraz ariko diren irakasleen formakuntza prozesuan, mailaz maila ikasbideek eskatzen dituzten hizkuntza gaitasunak, eta gaitasun horien neurtzeko tresnak gogoetatu eta definitu.
 - Gaitasun horien erdiesteko hartzekoak litezkeen neurriak eta plantan jartzekoak litezkeen antolaketak definitu, hitzartu eta obratu.
- ✓ Formakuntza jarraikiaren bidez, hizkuntza gaitasunen hobetzeko gaur egungo formakuntza beharrei ihardesten lagundu :
 - Lehen eta bigarren mailako irakasleen formakuntza beharren azterketatik abiatuz, beharrei ihardesteko formakuntza egitura egokiak definitu eta muntatu, irakaskuntzako aktore ezberdinekin partzuergoan.

2.2. Ikasmaterialaren ekoizpenaz arduratzen diren egiturak, kalitatezko produktuen sortzen eta zabaltzen lagundu :

- ✓ Gaur egungo ekoizpen programen obratzen jarraiki.
- ✓ Ikasmaterial eskaintza osatu, ondoko argitalpen programak beti beharren arabera definituz.
- ✓ Teknologia berrien garapenari jarraikiz, ekoizpenaz arduratzen diren egituren eta erabiltzaileen formakuntza egokitzen lagundu.
- ✓ Ikasmaterial ekoizpenaz arduratzen diren profesionalen hizkuntza formakuntza lagundu.

2.3. Teknologia berriek irakaskuntzarako irekitzen dituzten bideetaz baliatu :

- ✓ Euskarazko irakaskuntzari egokitu Lan Gune Numerikoak sortu.
- ✓ Euskararen hartze eta lantze denbora emendatzen duten sistema pertsonalak eskaini :
 - Sortzekoak litezkeen sistema egokiak begistatu : edukiak (entzuteko moduloak, ariketak, joko pedagogikoak...), euskarriak (KDak, internet bidezko euskarazko emankizunak, MP3 irakurgailu ibilkarien prestaketa sistema...).
 - Hautatu tresnak sortu eta erabilera antolatu.

3/ Euskarazko irakaskuntzan diren ikasleen euskarazko gaitasun osoaren erdiestea segurtatu.

3.1. Irakaskuntzako partaideek eta ikasleek hizkuntza gaitasunen erdiesteko daramaten ahalegina lagundu :

- ✓ Irakaskuntza eredu bakoitzean, mailaz maila erdietsi beharreko hizkuntza gaitasunak finkatu :
 - Sentsu hortara abiatu urratsak bururaino eramaten lagundu.
 - Erreferentziarako ereduak baliatu (Europa mailako markoa).
- ✓ Hizkuntza gaitasunen izartzeko egin-moldeak hitzartu eta neurtze egitura iraunkorra plantan jarri.
- ✓ Hizkuntza gaitasunen helburu kualitatiboak finkatzerakoan, euskara irakaskuntzarako hizkuntza gisa kontuan hartu.

3.2. Erabilpenaren bidez, irakaskuntzak euskararen kalitate osora heltzeko egiten dituen indarrak azkartu :

- ✓ Ikasorenatarik kanpo, erabilpenean oinarritu jarduera batzuen antolaketa bultzatu eta sustengatu, euskaraz aritzea eta plazerra uztartzea beti xekatuz :
 - Ikastetxeetan antolatu ekimenak, antzerkigintza, bertsogintza, kantagintza, ikasleen aldizkaria, kirol saioak...
 - Hedabideetako profesionalek laguntzen dituzten programa pedagogikoak (ikus *4/ Hedabideak*).
 - Irakurketaren eta idazketaren inguruan, programa pedagogikoak, idazleek parte-hartuz (ikus *6/ Argitalpena*) ;
 - Ikastetxeen arteko loturak, elgar trukatzeko, lehiaketak... ateraldiak, egonaldiak, bidaiak.
 - Euskarazko interneteko eskaintza (txat, blog, joko...), ikasleen parte-hartzea beti bultzatuz.
 - Zinema aretoetan, euskarazko filma, marrazki bizidun...
 - Belaunaldien arteko harremanak, euskaldun zaharren parte-hartzearekin, hizkuntzaren transmisioaren aberasteko, ahozkotasuna landuz, euskalkiak eta euskararen erranmolde naturalak eta egokiak baliatuz.

Euskararen Erakunde Publikoaren 2007ko lan egitarauak dokumentu honetan zerrendatu helburu anadana bat jorratuko du.

Paraleloki, eskola bitarteko euskararen ikaskuntzari buruzko sentiberatzeari dagokionez, lehen ekimen bat gauzatu izan da 2007ko martxoan, Irakaskuntza

Giristinoko, Publikoko eta Seaskako aholkulari pedagogikoek proposamen komuna eginik.

Bi hitzaldi-etzabaida antolatu dira joan den martxoaren 27 eta 28an Gilbert Dalgalian gomitaturik, hura hizkuntzalaria eta elebitasun goiztiarrari buruzko erreferentziatzko hainbat lanen autore izanki.

Eleaniztasunaren inguruko lehen gaualdi batek 150 pertsona bildu ditu (guraso eta lehen haurtzaroko profesionalak) eta biharamunean 3 sareetako 100 bat irakaslek didaktikaren gaia sakondu duen lan bilkura batean parte hartu dute.

Gurasoen eta horretan lanean ari diren profesionalen motibapenaren sustatzeko, ekimen mota hau arra berrituko da.

Ikuskari taldearekin lankidetzaz hertsian, informazio eta sentiberatze une horien elikatzeko euskarri egokia izan liteke aholkulari pedagogikoen sarea. Ekimen hauek osoki EEPren eginkizunetan sartzen baitira.

Azpimarratzekoa da ere Departamentuko Bulego Numerikoarekin hartua izan den inizatiba: MP3 tresnen erabileraren bitartez, euskararekiko kontaktuaren iraupenaren emendatzeko helburu duen ekimen esperimentalak da, 600 ikasleekin eramaten dena.

Desmartxa, lurraldeko kolegio guzietan proposatua izan zaie, eta 15 eskola publiko eta pribatutan burutu da. Orotara 35 klase desmartxa horretan sartu dira.

Formakuntza une baten ondotik, 2007ko martxoan abiatu dituzte irakasleek lehen aplikazioak.

Ildo berean, Administrazio Kontseiluak NRD Consulting-ek eraman egitasmo bat baieztatu du 2007ko deialdiaren baitan, eskoletan hedatzen ari diren irakaskuntza lan eremu numerikoen elebidun jartzeko.

**Euskararen eta euskarazko irakaskuntzari buruzko
hitzarmena
Hezkuntza Nazionaleko Ministerioa eta
Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorraren artekoa**

**8. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren alorrean
Euskararen Erakunde Publikoaren
2007. urteko lan egitaraua**

Hezkuntza Nazionala – Kontseilu Orokorra hitzarmenaren baitan Euskararen Erakunde Publikoari esleitu zaion eginkizuna, 2007an lan hauen inguruan egitura dadin erabaki da :

1. lan saila : euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa kualitatiboa, lehen mailan eta bigarren mailan.

- ↳ Lan ardatz hori, epe luzeko programazioaren 2. atalaren idazte eta onartzearekin gauzatuko da, orohar irakaskuntzen eskola kartaren definitzeari emana zitzaien 1. atalari segida emanez.
Dokumentu honetan definitu orientabideen luzapenak, Euskararen Erakunde Publikoaren lan egitaraua ere definituko du, gune berrien irekitzerako desmartzaren antzera. Eta aldi berean, Errektoretza eta Akademia Ikuskaritzako zerbitzatuekiko elkarraditze dispositiboa egitura lezake ere.

- ↳ Dokumentu honek, egoeraren argazki laburbildu baten eratzeko helburua du, bai eta ere euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolaketaren geroari buruzko orientabide konkretu batzuen definitzea. Adibidez :
 - eskolaren izaria kontutan har lezaketen euskara eta frantsesezko postuen banaketa moldeak;
 - euskarazko irakasleen jatorrizko formakuntza eta formakuntza jarraikia, eta eskola elebidunetan ari diren frantsesezko irakasleen informatze-sentiberatzea;
 - euskara eta beste gaien euskarazko irakaskuntzaren oren kopuruak;
 - eskola elebidunen berezitasunen kontutan hartzeko, egokitu behar litezkeen administrazio mailako prozedurak (irakasleen ordezkariak eskola kontseiluan...);
 - horretan ari diren eskolen proiektu elebidunaren egonkortzeko helburua duten jarraipen neurriak : irakasleak ez diren langileentzat hizkuntza formakuntza, eskolaz kanpoko edo hezkuntzako jarduerak euskaraz...)
 - lortu beharreko hizkuntza gaitasunen eta programen definitzea (Europako erreferentziazko taulari loturik) eta plantan jarri beharreko ebaluatze irizpideak ;
 - egoeraren argazkiak ezagutzera eman lezakeen beste edozein puntu...

- ↳ Partez hasia den lan hori, ofizialki abiatu da maiatzean, eta irakaskuntza munduko eragile ezberdinenganako komunikazio bat eraman liteke (irakasleak, zuzendariak, gurasoak...)
Euskaren Erakunde Publikoak eramandako diagnostiko eta azterketa faseak, Akademia Ikuskaritzako zerbitzuen, Errektoretzaren eta Ikuskari taldearen ekarpenak har ditzake oinarri. Irakasle, zuzendari, guraso elkarte, IUFMako arduradun edo formatzaileek elkarraditze une batzuetan har dezakete aztergai diagnostiko hori...

- ↳ Errektoretza eta Hezkuntza Nazionalarekin elkarraditu ondoan, dokumentua Euskararen Erakunde Publikoaren Administrazio kontseiluari emanen zaio aztergai.

2. lan saila : Hezkuntza Nazionala eta Seaskaren arteko akordioaren prestaketa lanak aitzina eraman :

Lehenbiziko lan dokumentu bat helarazia izan zaio Seaska Federazioari maiatzaren 10ean, elkarrizketak abia daitezen, orduko landuak izanen diren puntu batzuen inguruan. Gainerateko puntuen prestaketa lanak, denbora gehiago beharko baitute, anartean aitzina eramanen dira.

Finkatu beharreko irizpideen arabera, Hezkuntza Nazionala eta Seaskaren arteko elkarrizketan parte hartuko du Euskararen Erakunde Publikoak.

3. lan saila : Euskararen irakaskuntzaren diagnostikoa gaurkotu.

Dokumentu honen 2005eko lehen bertsioa, 2004-2005. urteko kopuruetan oinarritzen zena, eguneratzekoa liteke.

Euskararen Erakunde Publikoaren datu basea, orduz geroztik, Errektoritza eta Akademiako Ikuskaritzako datuek elikatua dute. Hala 2007. urteko sartzetik goiti, 4 urteko datuen konparaketak egiten ahalko dira.

Epe horretan gertatu den euskarazko irakaskuntzaren sendotze adierazgarriak, azterketa xehe bat merezi du, sektoreka. Halaber, azken bi urte hauetan egin lanaren ondorioz, eta guneen irekitzeen kopuru garrantzitsua ikusirik, eskaintzaren espazio mailako garapenaren ikertzeak ere balio luke.

Lan hori, 2007ko azken hiruhilean abiatzen ahalko da.

4. lan saila : Epe luzeko programazioko 1. atalaren obratze prozesuan, hots garapen lanean, definitu lan egitarauaren aitzina eramatea (gune berri batzuen idekitzea).

Abiatu desmartzaren jarraipena, finkatu lehentasunen arabera.

5. lan saila : Aholkulari pedagogikoekin eta ikuskari taldeekin, elebitasuna eta eskola mailako euskararen ikaskuntzaz informazio eta sentiberatze uneen antolaketa arra berritu.

↳ Zehaztu beharreko egitaraua.

6. lan saila : 2007an erabakiak izan diren tresna numerikoen erabiltzeari buruzko egitasmoak jarraiki eta obratu (MP3, irakaskuntzako lan eremu numerikoak...).